

1994ko martxoak 25

229. zenb.

PRESS

ARRASATE

Elkarrizketa
Juan Mari Uzkudun,
urteko enpresaria


Antzerkia
'Geroa' eta
txirrindularitza

Ikerlan
eta
espazioa




Nola heltzen zaizu publizitatea etxera?

**1993an JASOTAKO
PUBLIZITATEA**



**1993an ARRASATEKO ENTITATEEK
BIDALITAKO PUBLIZITATEA**




Nola jasotzen duzu informazioa Arrasateri buruz?

■ Euskaraz

% tan

■ Erdaraz



Panorama konpetitiboa eta enplegua

GATteko akordioa, aduanetako eskubi-deen liberalizazio progresiborako ituna sinatu ondoren, mundu mailako elkartrukatzeko komertzialen harreman orokorra hobetzea espero da, baina trukeen alde egiten den bitartean, mugimenduak ere ageri dira:

— Batzuk herrialderik garatuenera zuzendurik, merkaturik ahulenetan sartzeko aukera aprobetxatuz, eta

— beste batzu berriz, soldata bajuko herrialdeen indartzea, aukera hau produktu banalez merkaturak josteko erabiliko dutenak. Horrekin, erdian dauden herrialdeek efektu bikoitza jasango dute, lanpostu mordoska bat arriskuan jarritz, merkataritzak orokorrean gora egin arren.

Horren ondorio gisa ikusten dugu, urgentzia-ekin gainera, gure kostuak, laboralak zein produktuen kostu osoan eragiten duten beste batzuk, era bortitzean girotu ezean, lana sortzeko gure aukerak hutsak edo negatiboak izango dira.

Baina erabaki politikoetatik datozen aldaketek gain, komunikabideak era iraultzailean ari dira aurreratzen, ahotsa, testua eta irudia bateratzen dituen multimedia bereziki. Komunikabideek enpleguen mapa aldatu egingo dute eta nazio guztien posizio konpetitiboan ere eragin handia izango dute, komunikazioen familiako teknologiei jaramon egin eta garatzen ez badira.

Izan ere, Europako Ekonomi Elkartaren Liburu Zuria Europaren gainera datozen mehatxu eta aukera guztien laburpena da. Europak bere konpetitibitate eta lidergoan kalte handiak jasan ditu eta, Estatu Batuek eta Japonen etorkizuneko ardatz estrategikoetan eta XXI. mendeko garapen klabeetan egindako aurrerapengatik: Komunikazioetan, bioteknologian, informatikan eta elektronikan.

Komunikazioetako iraultza, energia mekanikoa, lurruna eta errepideak, itsasuntziak eta trenbideak bezalako komunikazio fisikoaren inguruan jaio zen industri iraultzaren parekoa edo handiagoa da.

Teknologia berriek eta akordio orokorrek aurreratu egiten dituzte protekzioismoak edo mugak, alde batera eta betera. Garai batean euren neurri eta teknologiarengatik seguru sentitzen zirenek ere gorriak ikusten dituzte gaur euren konpetitibitateari eta enpleguari eusteko, garapenean dauden nazioen erasoaren aurrean, orain hamarkada batzuk pentsatu ere egin ezin zitezkeen konpetitibitate mailetara heltzen dira eta denbora errekordean. Aro global eta mugazgaindikoan gaude,

Berlingo Harresia eta hari eusten zioten ideologiak erortzearekin azkartua.

Ezkenatoki aldaketa handia gertatu da. Geopolitikari dagokionez, lehiakide berriak sartu, aurrerapen tekniko handiago eta komunismoaren amaierarekin.


Demografiari dagokionez, biztanlegoaren zahartzearekin. Historian ez dago biztanlegoaren zahartzearen prezidenterik. 1990ean herrialde garatuatan 55 urtetik gorako pertsonak adina ziren 15 urtetik beherako umeak.

Teknikoki, iraultza industrialean gaude bete-betean, ekonomia desmaterializatzen ari da, zerbitzuak nagusitzen eta informazioaren jabetza eta zirkulazioa erabakiorrak dira.

Finantzen arloan, mundu mailako interdependentzia, dirua produktu egina eta finantza-espekulazioa denbora errealean.

Laburtuz, mundu globalizatu eta berria, aberastasan eta garapen globala sortzen duen bitartean aldebereko pobretzea ere sortzen duena. Drama baten aurrean gaude: munduaren bi herena oinarritzko ondasunetatik ere kanporatuta eta indigentiaren espiralean sartuta.

Zalantza barik, panorama bortizki konpetitiboa datorkigu, eta horrek, bere izaerarengatik, baztertu egingo ditu teknologiak eta mundu mailako gestio komertzialerako tresnak menderatzen aurreratzen ez dutenak.



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnua: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantza Loidi. **Kazetariak:** Luis Fernandez, Maider Egües, Maria Agirre. **Publikatzailea:** Amaia Gabilondo (77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnua: 77 08 15) **Maketatzailea:** Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantza Lizaso, Blanka Jauregi, ASA Taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 5.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: CNES / Ikerfan



Zatoz ezagutzera

ZUHAITZ

jatetxea!



Memesa


79 42 22



Aldizkari honek
Arrasateko Udalaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Euzko Jaurilaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Izadi

Sendabelarrak, dietetika eta kosmetika naturala.

Sendagile naturistaren kontsulta

Argaltze terapiak



Sebero Altube, 8 79 75 79
Kontzezino, 8 79 03 56

HAURTOKO

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

mokasin

Zapatak eta osagarriak

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK

77 08 15

Justizia?

Donostiako epaitegia. Goizeko 9.30ak. Idazkariak atea ireki du, barrura sartu naiz. Kanpoan, familiartereko eta lagunak. Beste hainbat pertsona ere bai, gure aldeko apustua egin.

Fiskalak, hasperen egin eta ahoa ireki du. 2 urte, lau hilabete eta egun bat. Jueza aspertuta, gora begira. Abokatua neu defenditzen. Ez diote kasu minimorik egin.

Kanpoan ahotsak indartu egion dira. Soldaduzkari ez, ordezkorik ez, ejerzitatorik ez. Fiskalak beraiek legea betetzeko daudela dio, eta nahiz eta kasu honetan beronekin bat ez etorri, agindutakoa aplikatu beharra daukala. Irrifartsu aplikatu du gainera.

Legeak aldatzeko daude, nahiz eta horretarako ehundaka pertsonen gartzeletatik pasa behar izango duten gizarte justuago baten antsiatan.

Juez hura dut orain go-goan, juez aspertu hura, eta gau hartan bere ametsgaiztoetako protagonista izan nintzela nahi nuke orain imaginatu, haren ametsgaiztoak nere nahiak betetzera datoz eta.

Gartzelek, epaiketek, militarrek eta boteretsuek ez dute horraitokan mugimendu antimilitarista geldiaraziko!

ANDONI URZELAI

Jarrai, 15. urteurrena

Duela 15 urte jaio zela Jarrai, ordutik honera milaka ekintza burutuaz. Denok izango dute jarrera ezberdina Jarrairi buruz, baina beti gogoz, zintotasunez eta Euskal Herriak jasaten duen hainbat injustizi aldatu nahien egindako borrokak izan dira.

Aurten, 15. urteurrena dela eta, Arrasaten Euskal Herri osoan bezala, mahainguruak, kontzertuak, lehiaketak etabar luze bat antolatu dugu, hala ere, Euskal Herri mailan burutuko den gazte topagune bat aipatu beharrean gaude. Bertan debateak, mendi-irteerak, kontzertuak etabar luze bat burutuko delarik 7.000 pertsonendako prestatutako karpa batean. Etxarri-Aranatz-en izango da Martxoak 1etik Apirilaren 2ra bitartean.

Bertan, aipamen berezi bat egin beharrean gaude Euskal Herriaren alde borrokatzeagatik preso daudenei, batzuk Jarrai-koak izan direnak. Presoak kalera! Denok Etxarrira!!

PREMIN SANPEDRO LARRAÑAGA
ARRASATEKO JARRAI

Oharra
Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzelearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzizen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontutan izan identifikatu bari-rik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

IBARRA


Garajea S.L.

EBRO NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

Doctor Bañez, 1 behean, San Andres auzoan
ASTELEHENETIK OSTIRALERA ARTE
Goizeko 9etatik 1a arte
TFNOA: 79 19 21

Zer oroitzapen duzu soldadutzatik?




Migel Etxagibel
Jubilatua (75 urte)

Danak txarrak, oso txarrak. Militarrak, geldik dauzen artien jan eitten daue, eta mubiduten dienien, hildakuen kurutziek atzetik.



Antonio Espejo
Jubilatua (64 urte)

Nik 50.enean egin nuen eta ondo pasatu nuen, oso ondo, Bartzelonako artillerian. 18 hilabetetan, 25 eguneko permisoa eduki nuen herrira joateko.



Txomin Aranzabal
Jubilatua (68 urte)

Danetakuek, onak eta txarrak. Gaixki pasatzen da, baiña ondo be pasatzen da. Nik Iruñan ein nauen, urte bi.




Juan Azkoaga
Jubilatua (70 urte)

Etxean baino hobeto, Gas-teizen. :Oso oroitzapen onak ditut, asko ikasi nuen. Bi urte t' erdi egon nintzen.



Alberto Borge
Jubilatua (61 urte)

Onak, Jacan egin nuen, eskola militarrean. Ondo pasatu nuen, eskiatzen eta eska-latzen ikasi nuen.



Jose Ramon Mauleon
Almazenista (36 urte)

Ez onak, ez txarrak. Ma-llorcan egon nintzen, eta gero handik Ibizara, eta hanka hau-tsi nuen. Orduan ia ez nuen ezer egin, ez guardiarik ez ezer.



Feliciano Bellido
Jubilatua (73 urte)

Denbora asko egin nuen, 6 urte, gerra eta guzti. Gerran txarto, miseria dariola, zorrie-kin eta sufrimenduekin.



Jose Antonio Salaberri
Jubilatua (72 urte)

Lelengo Canillejasera, gosiek eta eon giñen. Kaba-llerixen, hobetotxuau, kaba-llo batek ostikue emusten be-laukien eta jodidute eon nit-zen. Soldautzie munduko kabronada haundixena da.



ETXEPARE - BILINTX
LIBURUBENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

LODITASUNA,
LIPOESKULTURA,
LIPOSUKZIOA.

Zelulitia, grasa eta loditasuna behin betirako kentzeko.

ESTETIKA KLINIKA

Santa Kruz, 24-1a (1a eskailera)
ARETXABALETA TFNOA: 79 13 54

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igualaroia 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 08
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21

Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaitzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 25
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Larunbata 26
 Egunez eta gauez: Amezua. Sta. Marina.

Igandea 27
 Egunez eta gauez: Ruiz. Magdalena.

Astelehena 28
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Astearte 29
 Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerias.

Asteazkena 30
 Egunez eta gauez: Español. Iturriotz.

Osteguna 31
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

25 OSTIRALA

ZINEA
 "Todos los hombres sois iguales". 7etan eta 10etan.

BILERA INFORMATIBOA
 EEBBtako gazteak euren etxetan josotzeko interesa dutenentzat. Arratsaldeko 7etan, Erdiko Kale, 37. zenbakian. Antolatzaileak: La Puerta al Inglés eta Nacel.

MODA DESFILEA
 San Viatorren. Udaberri-Udako jantzien aurkezpena. Arratsaldeko 7etan. Sarrera 375 PTA.

KITARRA GELA AURKEZPENA ETA KONTZERTUA
 Arrasate Musikaleko aretoan, arratsaldeko 7etan.

ANTZERKIA
 "Sin Pelos en la Próstata". Eloorrioko Arriola Kultur aretoan. Gaueko 10etan.

26 LARUNBATA

ZINEA
 "Mr Jones". 5etan 7.30etan eta 10etan.

ERRAMU ZAPATUA BERGARAN
 Goizeko 9.30etan feria zabalduko da Ibargarai kalean. Ordu batean sari banaketa. 5.30etan herri kirolak Seminarioko patioan. Gaueko 10.30etan bertso jaialdia frontoian. Bertsolariak: Peñagarikano, Murua, Lazkano, Lizaso, Gorrotategi eta Larrañaga. Jai jartzaile, Joserra Garzia.

ANTZERKIA
 Geroa taldearen: "Rezagados". Amaia antzokian. Gaueko 10.30etan. Sarrera 500 PTA; gazte txartelaz 300 PTA. Antolatzailea, Arrasateko Udala. Laguntzailea, Euskal Herriko XXIV. Txirindulari Itzulua.

EAJ-PNVren MITIN FESTA
 Eskoriatzako frontoian. Egitaraua: Eguerdiko 12etan mitina. Hizlariak: Joseba Egibar, Josu Jon Imaz eta Xabier Arzalluz. Ordu 2etan bazkaria.

GOIKOBALU TXIKI ABESBATZA
 Lehenengo entsaiua arratsaldeko 4etan, San Frantzisko Xabier ikastolak Gazteluondon dituen lokaletan. 10-16 urte bitarteko neska mutilentzat.

BATZAR OROKORRA
 Danok-Bat elkarteak asanblea orokorra egingo du. Lehen deialdia arratsaldeko 7etan izango da, eta bigarrena 7.30etan. Danok-Bat elkartean. Eztabaida gaiak: balantze ekonomikoa, juntaren berriztatzea...

KONTZERTUA
 "Juicio Final" bilbotarrak eta "Aposento" errioxarrak. Gaueko 9etan, Gaztetxean. 350 PTA.

27 IGANDEA

ZINEA
 "Mr Jones". 5etan 7.30etan eta 10etan.

ARRASATE MUSIKALEKO EMANALDIA
 Txistu kontzertua. Udaletxeko arkupetan, eguerdiko ordu batean. Partaideak: Arrasate Musikaleko: txistu ikasleak, metal taldea, perkusio taldea, akordeonistak; Elgoibarko "Inazio Bereziartua" musika eskolako ikasleak eta Elgoibarko udaletxeko txistulari banda.

LERAKO TXAKURREN I. LASTERKETA
 Bergarako Gorlan, goizeko 10.30etan.

TXIRRINDULARI MARTXA IKASLEENTZAT
 Goizeko 10.30etan Sebero Altube Plazan, elkartu. 11etan irteera. 1994ko Txirindulari Itzuliko Herriko Batzordeak antolatuta.



MENDIKO MEDIKUNTZA ETA SOROSPENARI BURUZKO IKASTAROA

Klub-etako alpinista eta mendizaleei zuzendua. Apirilaren 12tik, 28ra. Oñatiko kultur etxean. Klaseak arratsaldeko 7.30etan hasiko dira. Plaza mugatuak. Prezioa: federatuek 2.500 PTA eta federatu gabeek 5.000 PTA. Izenematea Aloña Mendi, mendi taldean.

28 ASTELEHENA**ZINEA**

"Mr Jones". 7etan eta 9.30etan.

29 ASTEARTEA**ZINEA**

"Mr Jones". 7etan eta 9.30etan.

ASANBLADA

San Viator Ikastolan. Lehen deialdia 6.15etan eta bigarrena, 6.30etan. Eztabaida gaiak: akta, 92-93ko gestioa, 93-94rako gestio plana, ekarpen ezohizkoen proposamena, Ikastola Pribatuen Taldearen eraketa, bestelakoak eta norberak ekarritakoak.

HITZALDIA

AEDk antolatua. Gaia: Baserriaren etorkizuna. Hizlaria: Maitte Aristegi (baserritarra eta EHNEko abokatua). Monte-rongo aretoan, arratsaldeko 7,30etan.

ARGAZKI ERAKUSKETA

Martxoaren 26tik apirilaren 5era. Gaia: Euskal txirrindularitzaren historia. Monterronen. Orduategia: egunero 6etatik 8etara. Larunbat eta igandetan, goizeko 12etatik ordu 2etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

**OSASUN OKUPAZIONAL ETA INGURUGIROARI BURUZKO IKASTAROA**

Gaiak: ingurugiroari buruzko legedia; ingurugiroaren arazoak: demografia, energia, ura; lan giroaren arrisku faktoreak eta ondorioak langileen osasunean eta erakundeen zeregina. Iraupena, 60 ordu. Dohainik. Ikastaroaren hasiera, apirilaren 19an. CC.OO.en lokalean. Izenematea 795260 telefonora deituta

OINETAKO MASAIA IKASTAROA

Famili eta gizarte-hezketa-rako zentruak antolatuta. Astelehen eta asteazkene-tan, hasiera apirilaren 18an. 20 ordutako ikastaroa. Emalea, Jose Luis Armendia. Plaza mugatuak. Prezioa: 3.000 PTA gazte-entzat eta 5.000 PTA nagusientzat. Izenematea, zentruan. Tlf: 790459.

30 ASTEAZKENA**31** OSTEGUNA**LOURDESERA ERROMES**

Maiatzaren 20, 21, 22 eta 23an Lourdesera egingo den erromesaldira joan nahi duten gaisok, izenematea parroketan egin dezakete.

GITARRA IKASTAROA

Gazteentzat. Astearte eta ostegunetan, 7etatik 8etara. Hasiera apirilaren 19an. 20 ordutako ikastaroa. Prezioa: 3.000 PTA. Famili eta gizarte-hezketarako zentruak antolatuta

**SALOIKO DANTZEN IKASTAROA**

Gazte Zerbitzuak antolatuta. Dantzak: valsa, tangoa, samba, rumba, rocka, cha-cha-cha, fox-trot... Apirilaren 9tik maiatzaren 28ra. Ikastaroa larunbat arratsaldetan emango da, 5etatik 7etara, Musakolako saloian. Matrikula 10.000 PTA, ikasle eta langabetuentzat 7.000 PTA. Izenematea gazteen informazio bulegoan. Tlf: 770065.

ANAGRAMA LEHIAKETA

Arrasateko San Viator ikastolak bere anagramaren diseinu lehiaketa antolatu du. Irudiak islatu beharrekoa: historia luzea, gaztetasuna, bilakaera eta etorkizunara zabalik dagoela. **Nahi duenak parte har dezake. Anagramak beste kolore bat izan behar du zuria eta beltzaz gain. Obrak aurkezteko epea apirilaren 29an bukatuko da. Saria 50.000 PTAko izango da. Informazio gehiago nahi baduzu, dei egin 790411 telefonora.**

“Hasieran bai, lotsa ematen zidan, beste denak neskatilek ziren klaseetan batez ere. Baina beti izan dut buruan zerbait nahi duenak zerbait egin behar duela esaten duen lema. Gauza guztietarako bezala, konstantzia da behar dena. (...)”

Nire ikasleek, batek ere ez zuen detailerik galduko, eta hemengo balleteko neskatilek batez ere, laster galdetuko didate puntadun zapatilekin noiz hasiko diren. Erantzuna aurreratu egingo diet: zeuek nahi duzuenean, zuen dedikazioaren arabera, balletaren oinarri guztia lanean dago eta, eta ez tutuarekin edo puntarekin dantzan egiteak duen ikusgarritasunean”

Jon Aranbarrik 93-3-16ko

EL DIARIO VASCO

“Azkenean, ikusia dut mundu honetan ikusi beharreko guztia eta ez dut reenkartzerik ere nahi. Gauza desberdinen bat egongo dela, bada, gauza berera etortzekotan, hobeto beste dimentsioan geratzea.”

Hemen zehar gabiltzan artean, jarrai dezagun tokatu zaigun mundua eraikitzen. Eta niri Arrasaten jaiotzearekin loteria tokatu zitzaidalako esaten dut hori. Bizitzan dena opari bat izan da aspirinak eta dentistak dauden garai eta leku honetan jaio izanagatik. Sekula ez dut bizirik dagoen ezeren kontra tiro egin. Ez naiz ehiztaria ere izan. Ez iezadazue esan sekula tiro egin beharrik gabe 60 urte betetzera iristea zortea ez denik”.

Jose Mari Mendizabalek


EL LANDE

“Jose Mari Velez de Mendizabalen esku daude Eusko Ikaskuntzaren martxa onak eskatzen dituen plangintza, antolaketa, zuzendaritza, koordinazio eta kontrol lanak. (...) Union Cerrajera S.A. izeneko enpresan eman zituen Velez de Mendizabalek bere lehen pausuak gestio munduan. (...) Nabarmendu beharrekoa, bestalde, ARRASATE PRESS eta Telebista taldeko sortzaileko taldeki-de ere izan zela”.

ASMOZ TA JAKITEZ

Zertan geratuko da EUE alderdia?


EUE alderdia, Euskadin esparru sozial demokrata gorputzu behar zela uste genuelako sortu zen. Baina alderdi txikia gineenez, gure proiektua beste alderdi batzuekin bat eginda baka-rik eraman ahal izango genuela aurrera ikusi genuen. Guk argi geneukan ez zela helburua partidu bezela irautea, proiektu berri baten inguruan lan egitea zen gure asmoa. Horregatik EAekin bat egin genuen, era honetan proiektu sozial demokratik aurrera egingo zuela pentsatuz. Baina ikusi dugu hori ezinezkoa izan dela, eta hasierako asmoa bete ote daitekeen aztertzeko ordua heldu zaigu.



Aitor Orobengoa
EUEko zinegotzia

Gure ustez, momentu honetan Euskal-Herrian ez daude proiektu sozial-demokrata bultzatzeko baldintzak. Alderdi guztien helburua irautea da eta ez batasunerako pausoak ematea. Gure proiektua giro honetan ezin da garatu, eta politikatik bizi izateko asmorik ez dugunez, baldintzak betetzen ez diren bitartean politikaz lotura zuzenik ez edukitzea erabaki dugu. Beraz, alderdi politiko bezala ez dugu aurrera egingo, baina eztabaidagune eta mahainguruak eginez lanean jarraituko dugu. Fundazio gisa jarraituko dugula esan daiteke. Alderdien artean batasuna gertatzen dela ikusten badugu, berriz, ostera ere alderdi bezala agertuko gara.

Honek ez du esan nahi nik zinegotzi kargutik dimitituko dudanik. Hautesleen aurrean betebeharrak dugunez, kargu publikoa dugunok lege-aldia bukatu arte, bakoitzak bere zeregina beteko dugu. Gainera, kargu publikoa dugunok bilerak eta egingo ditugu, gure ekintzak bateratuak izan daitezen.



ZARRAOA
EL ARCA DE NOE

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikuluak
- Bitxitegia
- Jostailuak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

TXOKO TABERNA

Gure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora, 7 Tfnoa: 79 20 10 ARRASATE



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheá Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XATHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie



DENDARABA

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

Pleno berezia

Uharkapeko obrak hasteko adjudikazioa onartu zuen udalak, joan den ostegunean egindako premiazko plenoan. Lana Dragados y Construcciones enpresari adjudikatu diote, 75 milioi PTAtan. Obren garrantziagatik eta prozedura kuestioengatik, udalbatzak erabaki behar zituen, eta horregatik egin zen plenoa. Adjudikazioa aho batez onartu zuten zinegotzi guztiak.

FMLNrekin elkartasuna

Komite Internazionalistak antolatuta, El Salvador-ko herriarekiko elkartasun ekitaldia izan zen joan den igandean, El Salvadorren hauteskundeak egin ziren egun berean. Auto karabana bat egin zen eskualdean zehar, eta ekitaldian zenbait hizlarik hartu zuten hitza, tartean brigadista izandako batzuk, edo Kristina Arregik, El Salvadorren hil zen Pakito Arriaranen amak.

Asfaltatze-lanak

Joan den ostiralean hasi ziren errepidearen asfaltatze-lanak, horrenbeste espero



Intsumisioen alde

Intsumisioaren aldeko ikasleen borroka eguna izan zen joan den ostiralekoa. Institutuan eta beste ikastetxe batzuetan greba egin zuten, eta eguerdian manifestazioa egin zuten 300 bat lagunek Arrasateko erdigunean. Datorren asteartean, hilak 29, Arrasateko hirugarren intsumisioa, Josu Galdos, epaituko dute Donostian. Fiskalak bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra eskatzen du Galdosentzat.

izandakoak. Diputazioaren makinak Euskadiko Itzulia hasteko egun batzuk falta zirela azaldu dira azkenean, antolatzaileen eta udalaren hainbat eskaeraren ondoren. Asteazkenean zehar segitu dute zuloak tapatzeko lanek, trafikoarentzako eragozpen handiek.

ARKOren biltzarra

ARKO elkarteak urteko biltzarra egin zuen astear-

tean Monterronen. Arrasate Press eta ATBko 93ko jardueraren berri eman zen, eta diru-kontu orekatu batzuk aurkeztu eta onartu ziren. Kontuetan oreka horri eusteko, sail komertzialaren indartu beharra aipatu zen. Aurrera begirako erronken artean, Arrasate Irratia martxan jartzea aipatu zen. Irratien legea publiko egin arte (eta aste honetan bertan onartu du Jaurlaritzak), blokeatuta egon da auzia

azken hilabeteetan, baina legeak irten duenez jada, udal irratia martxan jartzeko ez da beste eragozpenik izango.

Cerrajera eta LKS

Udalaren enkarguz, LKS enpresak ikerketa bat egingo du, Cerrajera eta Transformados Metalicos-en baliagarritasuna ziurtatzeko, lanpostu guztiak gordeta. Enpresen jabeak, UCEM Korporazioak, lanpostuak erdira murriztu nahi ditu, eta lantegiak tokiz aldatu ere bai, terrenoak saltzeko.

JAIOTZAK
• Alaitz Santiago Iñiguez. Martxoaren 11n.
• Leire Bresa Goñi. 13an.
• Kerman Vazquez Fernandez. 15ean.
• Alaitz Martinez Mujika. 19an.
EZKONTZAK
• Fernando Arrizabalaga Elorza & Kontxi Ruiz de Zarate Berriotxo. Martxoaren 19an. Zibilez.
• Jose Javier Perez Usabiaga & Ana Rosa Arroniz Lopez de Zierdia. 19an. Zibilez.
• Jesus Maria Palomero Ortiz & Deikunde Barrutia Uriarte. 19an. Elizaz.
HILDAKOAK
• Jesus Garcia Velasco. Martxoaren 9an. 65 urte.
• Pedro Irasuegi Caicedo. 11n. 79 urte.

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

JIVI

PINTURA EKOLOGIKOAK
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoak. Moketa losetan.

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87



IÑAKI ARANBURU *

Gogorra baina emankorra

Urte berriaren aurrean, Kultur Elkarteoi aurrekoaren errepasoa eta azterketa egin eta berriari begira jartzea tokatu ohi zaigu. Gure bazkideen aurrean, urtean zehar egindako lanaren deskargua egin eta aurrera begira ikusten diren bideak markatu.

Aste honetan egin du ARKOk urteroko bere Bazar Orokorra, eta atzera begira, urtea deskribatzen duten hitz bi ikusten ditugula esan behar: gogorra eta emankorra. Gogorra sasoiak eta krisiak hala egin dutelako, eta emankorra, ahaleginez eta erakunde, herritar eta enpresen laguntzaz emaitza onak eta fruitu onak lortu digulako.

ARRASATE PRESSEK 5 urte bete ditu 93an, eta ospakizun horrekin bat eginez, Herri Komunikabideen II. Jardunaldiak antolatu genituen Arrasaten, arrakastatsu eta oihartzunez. Horrekin bate-

ra, abendutik koloretan argitaratzen da Arrasateko aste-karia eta tresneria berria ere izan zuen ARRASATE PRESSEK urtebetetzeko opari.

ATBk ere, antzemango zenutenez, irudian aurrerapauso nabarmena eman du, tresneria guztia Betacam sistemakoa izatearen ondorioz. Urrats berri bat izan da Arrasate Telebistarentzat ere.

Arlo komertzialari dago-kionez, sare komertziala sendotzeko pausoa ere eman da 93an, merkatuaren egoera kaskarra kontutan izanda, ez nolanhikoa gainera.

.....
Denon artean eta denon ideiekin egingo ditugu benetako Arrasateko komunikabideak

Guzti honetarako, eta eguneroko telebistako emisioen eta asteroko aldizkariaren lan etengaberako, esan gabe doa erakundeen eta herriko merkatarien laguntza handia izan dugula. Arrasateko Udala, Gipuzkoako Diputazioa, Jaurilaritza, herriko enpresak, eta hainbat eta hainbat merkataritxi eta handi, Arrasateko komunikabideetan konfindantza jartzen dutenak.

Eta urte gogor horri begirada positiboa botatzen badiogu, zer esanik ez etorkizun dugunari. Hainbat asmo geratu zaigu tintontzian, aspalditik gauzatu guran gabiltzanak eta berriak. Baina horretarako aurrera ere laguntza beharrean izango garenez, gonbitea luzatu nahi nizuke lefro hauetatik: zuen herriko komunikabideetara hurbil zaitezten gonbitea, parte hartzeko deia. Izan ere, denon artean eta denon ideiekin egingo ditugu benetako Arrasateko komunikabideak. ARKOk zu ere kolaboratzaile behar zaituelako.

Orain arte lanean lagundu diguzun horri ere, eskerrikasko, eta aurrera ere gure artean espero zaitugula.

* ARKOKO LEHENDAKARIA

USTEAK USTE

ANTZERKIA

Datorren igande honetan Antzerkiaren nazioarteko eguna ospatzen dela eta, Antzerkiak Arrasaten duen eragin edo izan duen historia urriaz zenbait gogoeta egitea interesgarri otu zait. Gure aramaixoa ospetsuaren, Pedro Inazio Barrutia eskribanoaren Ikuskizunaren ondotik ez da askorik sortu, gaur egungo talde bakarra agertu artean. Antzerkiak musikarekin topo egiten duen generoan, berriz, herriak izan du sormen gaitasunik, antolatutako zartzuelak horren lekuko dira. Arrazakeriaren aurkako Nazioarteko Eguna, Uraren Eguna, Antzerkiaren Naziorteko Eguna, gabeziak aldarrikatzeko eguna; arrazoi berberetatik intsumiso eta langabetuen egunak asmatu beharko genituzke, hauen aldarrikapena egunerokoa da baina. Kontura ez datorrela pentsatu arren, gabeziak eta antzerkiak bat egiten dute Tunantekin, aldarrikapena hartuz antzerki komunikaziorako. Euskal Herriko antzerki testurik zaharrena bertakoa izanik, euskaraz arituko litzatekeen taldea bultzatu beharko genuke, dagoena ahaztu barik, eta herritarrok antzerkia ikusteko ohitura eskasa ugaltu beharko.


JON GARAI.

BURGALES JATETXEA

Jaki goxoak eta giro atsegina

Durana, 12
ARETXABALETA

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE



Gaztetxoan aisialdirako ekintzak antolatzea izango da Txatxilipurdiren lana.

Txatxilipurdi elkartea: AEDren kimu berria

AEDtik kanpo elkarte izaera propioa izango du aurrerantzean Txatxilipurdi taldeak. Asteazkenean eratu zen formalki elkarte berria, eta bere gain hartuko du gaztetxo eta haurrekin AEDk antolatu izan duen ekitaldi multzoa: ludoteka, udalekuak, babylekuak, gazte txokoak... ARKO bere garaian AEDtik sortu zen bezala, "banaketa" honek eraginkortasuna lortzea du hel-buru, baina jakina, AEDren filosofia berarekin egingo du lan Txatxilipurdik.

Gaztetxoan aisialdirako ekintzak antolatzeko, eta euskaraz antolatzeko, horixe izango da Txatxilipurdiren lana. Orain arte bezala, Arrasaten egingo du lan Txatxilipurdik, baina zabalago jokatzeko ez dute baztertzen. Izan ere, kultur-elkarte gisa sortzen den arren, kontratatzeke zerbitzuak eskaintzen dituen erakunde bat izango da.

Duela zazpi urte ekin zion AEDk aisialdi eta haurrentzako ekintzak antolatzeari. Ordutik ekintzak hazi eta hazi egin dira, eta orain Txatxilipurdik egingizun mordoa

dauka: udalekuak, ludotekak, begirale zerbitzu eta formakuntza, adibidez. Baina asmo berriak ere badauzkate, hala nola haur berezientzako aisialdi ekintzak eta etxeko-lan txokoak antolatzeko, edo auzoetan irekiko diren gazteentzako lokalak gestionatzea.

Lehen AEDk ekintza horietarako hartzen zituen diru-laguntzak hartuko ditu orain Txatxilipurdik, baina bere iturri propioak ere izango ditu, zenbait zerbitzu kobratu egiten baitira. Horrez gain, udalarekin hitzarmena sinatu nahi du elkarte berriak. Txatxilipurdi elkartea zuzendaritza batzorde batekin jaio da, Nerea Alzola izango da lehendakaria, eta Urri Urizar dinamizatzailea. AEDren lokaletan egingo dute lan oraingoz.

Txatxilipurdiren "banaketa" honen berri, otsailean egindako AEDren batzar nagusian eman zen. Bertan informatu zuten, AEDko beste adar batek ere izaera propioa izango du laster, Ekin emakume taldeak, hain zuzen ere.

Uharkapeko obrak eta plenoa

Ostiral honetan udal plenoa bilduko da. Gai-ordenean, besteak beste, babesetxe bat irekitzeko egitasmoa, edo Uharkapeko mendi-magalaren segurtasun orma egiteko proiektua lehiaketa publikora ateratzeko proposamena (300 milioi PTAtik gorako proiektua).

Deba ibaiaren kutsadura

Jaurilaritzak erreken kutsaturari buruzko datuak eman ditu jakitera, eta kutsatuenean artean Deba ibaia ageri da. Debako ura ez da edateko gai, ez eta bainurako edo arrainen bizileku moduan ere. Nolanahi ere gure erreka Deba Garaian baino kutsatuago ageri da Deba Behan. Jaurilaritzaren ikerketan adierazten denez, Ego eta Deba ibaietan industrietatik etorritako metal astunen kontzetratio astunak daude.

Zaborra mendietan

Dozenaka tona zabor bildu dituzte eskualdeko mendizale elkarteek azken asteetan zehar inguruko mendi eta basoetan, Diputazioarekin elkarlanean. Deba Garaian dagokionez, Degurixan 6 tona jaso dituzte; Kurtzeberri bi tona, Aloñan 3, Araotzen 5, eta Alabita, Leizargarate eta Aitzorrotzen 2,5 tona eta auto zahar bat.

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16



Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Monica de la Maza, panteoi-jabe batzuekin bileran.

Panteoietako abokatuak ez du epaitegietara joko

Aldaiko kanposantu zaharreko panteoi-jabeei bide judizialek ez ekiteko gomendatu die euren abokatuak, Monica de la Mazak. Joan den ostegunean izandako bilera batean, abokatuak egoera legala azaldu zien Aldain panteoiak dituzten 125 familiei. De la Mazaren iritziz, bide judizialek jo ezker, ez dago aukerarik epaiketa batean udalari irabazteko, udal batek eskubide osoa daukalako, legediaren argitan, kanposantu baten kokapen eta funtzionamenduaz erabakitzeke. Abokatuak gehitu zuenez, dagoeneko ezagutzen diren epaiek hala konfirmatzen dute.

Abokatuak bide administratibotik errekurritzea aholkatu die, kalteordain edo indemnizazioak lortzeko. Familietako batzuk, ostera, ez daude ados horrekin. Hasiera batetik, diru-konponketa edo trukerik onartu barik, Aldain enterratzen segitzea izan da familia hauen eskaera. Hori dela eta, familia batzuk ez dute deskartatu epaitegira jotzea.

Martxoaren 4ean erabaki zuen udal korporazioak Aldai ixtea. Geroztik ez dute inor ehortzi kanposantu zaharrean. Bestalde, aste honetan eraso bandaliko bat gertatu zen astelehen gauetz Aldain: bospasei panteoitako harlauzak apurtu egin zituzten.

Hezibideren batzarra

Urteko batzar nagusia egin zuen Hezibide elkar-teak -Deba Garaiko hainbat ikastetxe biltzen dituenak- asteazkenean. Iaz, ikastolak sare publiko eta pribatuaren artean aukeratu beharrean jarri zituen Hezkuntza sailak, eta gertaera horrek markatu zuen 93ko jardueraren ezaugarri nagusietako bat. "Hezibideko ikastetxeak identifikatzen dituen hezkuntz-ereduari ez zaio inolako lehentasunik eman eskola-itunerako akordio politikoan", dio Hezibidek banatutako agiri batean. "Aldiz, lehentasun osoa dute gobernuaeren menpeko diren ikastetxeek", gehitzen du idatziak.

Epaitegi berria

Asteazkenean inauguratuko zen Arrasateko epaitegi berria, Zuloaga kalean egokitu zaion lokalean. Hala ere, oraindik ez dago bake-epailerik izendatuta Arrasaten, eta hain zuzen ere, aste honetan hasi du udalak epailea aukeratzeko prozedura, postua herriko hainbat elkartetako lehendakari izandakoei eskainirik.



URONDO

elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE



El Salvadorrekiko elkartasun ekitaldi bat, joan den igandean Seber Altube plazan.

Hirugarren munduko lau proiekturako laguntza

Udalak lau proiekturen artean banatuko du iaz garapen proiektuetara destinatutako 2 milioi PTAko diru partida. Diru hori aurrekontu arruntaren %0,2a da, gutxi gorabehera, hirugarren munduaren aldeko taldeak, Harremanek, eskatzen duenaren erdia baino gutxiago.

Lehe proiektuaren funtsa Guatemalako Quiche eskualdean 545 errefuxiatu indigenen familiak berkitzeko datza, eta 280.000 PTA eman zaizkio. 2. proiektua Mugarik Gabe erakundeak aurkeztu zuen, eta El Salvadorren etxebizitza batzuk eraikitzeke erabiliko da (440.000 PTAko laguntza). 3.

proiektua, Harremanek bultzatzen duena da, Indiako Adivasi etniako nekazari batzuen garapenean laguntzeko plana da, eta 800.000 PTA destinatuko da helburu honetarako. 4. proiektua ez dagokio hirugarren munduari, baina premia larri bati erantzuten dio, aurrekoek bezala: serbiarrek Bosnian setiatutako Gorazde hiriri laguntzeko SOS Balkanesen plan batean 480.000 PTA gastatuko dira.

Proiektu guztietan, eskaeran ageri zena baino diru gutxiago eskaini da. Gainera, laguntzatik kanpo geratu dira beste lau eskaera, Peru, El Salvador (2 proiektu desberdin) eta Maliri buruzkoak.

San Andresko plazak

San Andres auzoko Gudari plazako obren amaierarako proiektua onartu du udalak, 19 milioi PTAtan. Ez da Gudari plazakoa San Andresen egiten ari diren obra bakarra. Izan ere, egun hauetan obran murgilduta dago besteren ondoan dagoen Hiruki plaza: zoru guztia jaso egin dute makinekin. Orain behelaldean garajeak eraikiko dituzte saltzeko, eta goian parke bat, lehen zegoena baino askoz egoera hobean.

Aretxabaletako intsumisioen epaiketak


Felix Iñurrategi mendizale atxabaltarrak bere epaia ezagutu du aste honetan: 3 hilabete. Zigor "biguna" izan da, espetxeraterik ez dakarrena, eta gainera, epaileak intsumisioaren aldeko adierazpenekin osatu du sententzia. Hala ere, baliteke fiskalak epaia errekurritzea. Aste honetan beste atxabaltar bat ere epaitu dute, Jon Ander Loidi, K-2ko iazko espedizioan izan zena.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Karmelo Uribarren eta
Miren Bengoa gaur
ezkontzekoak ziren. Hona
hemen lagunek egin dieten
bertsoa:


Paperek ez dute
gauza asko aldatzen
lehen amodioa zena
amodioa izango da gero
Miren eta Karmelo
Karmelo eta Miren
izan zaitezte beti
zorionsu eta bihozbero



Oraingoan Lancasterreko
neskatxa ingeles hauek etorri
zaizkigu Arrasate ezagutzera.
Udan berriz, arrasatearrak
joango dira Lancaterrera.

Batzuk gazteleraz ikasi nahi
dute, besteek berriz, ingelesa.
Baina bitartean, hizkuntzak
ikasi eta tokiak ere ezagutzen
dira.

Hilabete baino ez darama Arrasaten kupoiak
saltzen, eta dagoeneko Astigarragan bizi
den lagun honek ekarri digu saria. Joan zen
ostiralean, Imanol Etxebarriak saldutako 20
zenbaki saritu ziren ONCERen zozketan.
Gehienek zenbaki bana erosi zien eta
bakoitzak 100.000 PTA jaso zituen, baina
norbaitek bost zenbaki ere erosi ei zituen.
Zorionak denei, eta Imanol, jarraitu zortea
ekartzen!



- Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

“PAL”

**burdindegia,
brikolage
eta tresneria**

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

IZEN PROPIOAK

● ARKO elkartearen Zuzendaritza Batzordeko partaide berriak hauek izango dira: **Jose Jaime Bengoa, Maite Bergaretxe, Lauri Zabala eta Jokin Mujika.**

● Txatxilipurdi elkartearen Zuzendaritza Batzordeko partaide berriak, berriz: **Lehendakaria Nerea Alzola, Lehendakariordea Aitor Elizaran, Idazkaria Ane Miren Güemes eta Diruzaina Mertxe Canas. Batzordekideak: Nati Zugasti, Amaia Larrañaga, Errukane Aperribai eta Jon Arregi.**

● **Koldo Gastañaga, 27** urte, atxabaltarra, Deba Garaiko Mankomunitateak eta AFPA erakundeak sinatu duten lankidetzaren hitzarmena dela eta, Baionara joango da iturgintza eta berotze teknikak ikastera.



Atxabaltako Kurtzeberri ikastetxe-ko ikasleen bisita izan genuen ostiralean. Oraingoan 6. mailako ikasleak izan dira Arrasate Press eta ATB ezagutzera etorri direnak. Galderagari egin eta interes handia erakutsi zuten, probetxuzko bisita izango zela espero dugu.



Lasa familiak, toki desberdinetan ditu jatetxe eta tabernak. Baita Arrasaten ere, Mendi taberna hain zuzen ere. Zeregin honetan hainbeste urtez lan egin duen familiari, Euskal Sukalderitza Elkarteak 1994ko sari berezia eman dio. Zorionak guztioi!

• ARTEA •

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak

Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioak
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Mendi
taberna


MENDI DA ZURE ETXEA

Maalako Arrabala, 4
Tfnoa: 79 20 54


LORAMENDI KIROLAK




UDABERRIKO MODELO BERRIAK




ADIDAS
STREETBALL MID



REEBOK
THE PUMP VERT



PRO TOUCH
STREETBASKET MID



NIKE
AIR SHEER
FORCE MID

ZURE GUSTOKO MARKAK

REEBOK - AVIA - ADIDAS - NIKE - ASICS - SAUCONY - PRO TOUCH

HAU DA ESPERO ZENUENA!!



FIAT PUNTO BERRIA!!

KANPAZAR FIAT

TAILERRA: Bizkaia Etorbidea z/g. Tfnoa: 79 41 98
ERAKUSKETA: Araba Etorbidea, 4. Tfnoa: 79 77 66

Futbito Txapelketa ZALDIBAREN



Burruka bizia talde guztietan

Bigarren fasea aurrera doa: hiru partidu jokatuta, eta lauren faltan, talde batzuk jada atzean geratu dira. Lehen fasean baino berdintasun handiagoa dagoela bistakoa da talde guztietan. A taldean, Pepelus lider ageri da, denon sorpresarako, lehen fasean estu ibili ziren eta. Ustez hobeto ibili behar zuten Nabarrosekoak, ordea, aukerarik gabe. B taldean, Mikelos aurretik, baina sekulako ja-

rraitzaile "paketea" atzetik. C taldean, Argi Ibili bere faborito pape-rean tinko, eta dexente atzerago, Suministros Ugarte, beti exitoen ateetan geratzeko ohitura duen ekipoa. D taldean, azkenik, lehia polita egon liteke, baina Zuloak-ekoek dute abantaila oraingoz. Talde honetako sailkapena ixten, AC Surcos, ekipo guztien artean puntu bat bera ere lortu ez duen bakarra.

**PUB
HAIZEA**



**Felipe
Arrizabalaga**
aroztegia



Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

Zaldibarko Txapelketa

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
PEPELUS	3	3	0	0	17	5	6
FRANCISCANERR	3	2	0	1	18	11	4
LOS HEREDIA	3	2	0	1	12	10	4
ARLUTZ	3	1	1	1	9	9	3
POTROAK LORATEGI	3	0	3	0	11	11	3
REVOLUTION ROCK	3	1	0	2	10	18	2
NABARROS	3	0	1	2	8	13	1
ZOTZ	3	0	1	2	10	18	1

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	3	2	1	0	14	11	5
BUKANAK	3	2	0	1	14	8	4
FOSFOROS	3	2	0	1	20	14	4
ANBOTOSTE KT	3	2	0	1	10	10	4
ZULUS	3	2	0	1	12	9	4
UGLYS TXINATO	3	0	1	2	13	19	1
JEY JULIWER	3	0	1	2	6	11	1
SOKOAKOAK	3	0	1	2	6	13	1

C taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	3	3	0	0	19	8	6
ARR. KIROLAK	3	2	0	1	14	10	4
MOTZ	3	2	0	1	16	7	4
IRATI STS	3	2	0	1	12	11	4
TOVARIXTX	3	1	0	2	9	15	2
SUM. UGARTE	3	1	0	2	17	12	2
KAKAJAURI	3	0	1	2	7	15	1
TRONKOTEAK	3	0	1	2	6	22	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ZULOAK	3	3	0	0	10	7	6
TRIKITI	3	2	1	0	16	7	5
CARBURROS	3	2	1	0	12	6	5
LENITZ GARAGAR.	3	2	0	1	16	8	4
DANOK LAGUN	3	1	0	2	6	11	2
TUTTIFRUTI	3	0	1	2	6	9	1
ARR. KRISTALDEGIA	3	0	1	2	9	19	1
AC SURCOS	3	0	0	3	10	18	0

Uribe auzoa Txapelketa

A taldea	B taldea
Borrokn Roll 4	Solano 7 Mares 3
Semen Up 4	Bodisca 3
Corinto Taberna 4	Nuevo Taberna 2
Kabiru 2	Lokis 2
Lo + X 2	Yomai 2
Elisabeth 2	Berango 2
Ola Tailerrak 2	Ganbelas 2
Trotabares 0	Bayern Lenitz 2
Altza Porru 0	Ke Oxtias 1
Lore Gazteak 0	Sorgol 1
No Comment 0	Atxanta ke te... 0

D taldea	E taldea
Stockers 4	Txeyenex 4
Lautherbrunnen 4	Los Dimy 4
Top Hits 3	Fancy Bois 4
Hirei 2	Los Dalton 3
Equs 2	Beti Gazte 2
Belo eta Txapi 2	Los Garimbas 2
Los Insociables 2	Kirten Tropel 1
Ezkiñako Hontzak 1	Auf dem Koffer 0
Estrella Floja 0	Jo ta Akabau 0
Mobil. Arenaza 0	Borrokn Prom. 0
Etxe Mobiliario 0	Excav. Lete 0

EsLu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

ARGI PLASTIC
• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
• Lantegitik zure ebxera zuzenean
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa berria: Kanpatorrea, 2 (Parrokia ondoan) ETORRI IKUSTERA!
Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30 / 79 11 35

M
MIKEL ELORZA ETXEBARRIA
25. 452 zenbakidun Aseguru Artekarria
Arrisku gerentea
S.Z.O. F-95 erregistro Zka.
Boulevard, 11 5º-A
Tfnoa: 43 04 14
Fax: 43 11 01
20.003 DONOSTIA
Erdiko kale, 4 Behea
Tfnoa-Fax: 77 13 09
20.500 ARRASATE

Garaiako perretxikoak urte guztian zehar!!
RUTH GATZAGA
• Eguneko menua
• Asteburuetan menu berezia
• Paregabeko karta
Olarte kantoia. Tfnoa: 79 59 57
ARRASATE



Datorren astebururako, Zaldibarko hiru partidu nabarmenduko ditugu. Larunbat arratsaldeko Los Heredia - Franciscanerr lehia, eta igande goizeko bi partidu: Trikiti - Lenitz Garagardotegia eta Irati STS - Arrasate Kirolak. Ohizkoa den bezala, seguruenik igandekoek bilduko dute ikusle gehien.

BELARRIRA

◆ **Aste Santuko oporrak.** Asteburu honetan ez, hurrengoan, jai hartuko dute Zaldibarko txapelketak eta Uribe auzokoak. Aste Santuko oporretarako libre, beraz. Baina adi, hurrengo asteburuan, apirilaren 9 eta 10ean, jokatu egingo da bi lehiaketetan, nahiz eta artean eskoletan opor izan.

◆ **Zigorrik ez.** Zaldibarko txapelketan ez da inolako intzidentziarik gertatu bigarren fase honetan, orain artean behintzat. Uribe Auzokoan, ordea, talde bati arbitratze kaskarragatik abisua eman diote antolatzailleek joan den asteburuan, baina oraingoz hori ez dago zigorrik.

◆ **Zaldibarko argiak.** Zaldibarko pilotalekuan argiteria berriztatzeko 1.048.000 PTako enkargua egin dio udalak Electro-Urondo etxeari. Beraz, argi berri eta potenteak izango ditu azkenik txapelketak, ordutegia aldatu eta egunak luzatzen hasten diren une hauetan, hain zuzen.

EMAITZAK ZALDIBAR

A TALDEA

Los Heredia 6 - Nabarros 2
Potroak Lorategi 3 - Arlutz 3
Franciscanerr 10 - Revolution Rock 3
Pepelus 8 - Zotz 1

B TALDEA

Zulus 7 - Uglys Txinato 3
Fosforos 5 - Mikelos 6
Bukanak 7 - Sokoakoak 1
Jey Juliwer 1 - Anbotoste KT 3

C TALDEA

Argi Ibili 5 - Irati STS 2
Suministros Ugarte 4 - Tovarixt 5
Motz 1 - Arrasate Kirolak 3
Kakajauri 3 - Tronkoteak 3

D TALDEA

Trikiti 2 - Tuttifruiti 2
Zuloak 3 - Danok Lagun 2
Lenitz Garagar. 9 - Arrasate Kristal. 2
Carbueros 8 - AC Surcos 3

EMAITZAK URIBE AUZOA

A TALDEA

Ola Tailerrak 4 - Altza Porru 2
Corinto Taberna 4 - Trotabares 2
Semen Up 9 - Lore Gazteak 4
Borrockn Roll 4 - No Comment 1
Kabiru 4 - Elisabeth 5

B TALDEA

Atxanta ke te merece 2 - Lokis 4
Berango Sukaldeak 2 - Bodisca 5
Solano 7 Mares 6 - Ganbelas 2
Sorgol 3 - Yomai 3
Ke Oxtias 1 - Bayern Lenitz 2

D TALDEA

Estrella Floja 2 - Hirei 5
Lautherbrunnen 6 - Equis 5
Etxe Mobiliario 0 - Top Hits 8
Ezkiñako Hontzak 1 - Los Insociales 3
Belo eta Txapi 1 - Stockers 4

E TALDEA

Fancy Bois 5 - Auf dem Koffer
Jo ta Akabau 2 - Los Dimy 3
Kirten Tropel 4 - Los Dalton 4
Los Garimbas 8 - Borrock Promesas 2
Beti Gazte 2 - Txeyenex 3



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ASTEBURU HONETAN

ZALDIBAR

Larunbata 26

Zaldibar

- 08.50 Tovarixtx - Tronkoteak
- 10.00 Zuloak - Carbuross
- 11.00 Tuttifruti - Arrasate Kristaldegia
- 12.00 Zulus - Bukanak
- 13.00 Mikelos - Anbotoste KT
- 14.00 Nabarro - Revolution Rock
- 15.00 Suministros Ugarte - Kakajauri
- 16.00 Potroal Lorategi - Pepelus
- 17.00 Los Heredia - Franciscanerr
- 18.00 Uglys Txinato - Sokoakoak
- 19.00 Arlutz - Zotz

Igandea 27

Zaldibar

- 08.50 Fosforos - Jey Juliwer
- 10.00 Danok Lagun - AC Surcos
- 11.00 Trikiti - Lenitz Garagardotegia
- 12.00 Irati STS - Arrasate Kirolak
- 13.00 Argi Ibili - Motz

ZALDIBAR

Larunbata 26

Iturripe A

- 09.00 Semen Up - No Comment
- 10.00 Nuevo Taberna - Lokis
- 11.00 Ola Tailerrak - Trotabares
- 12.00 Jo ta Akabau - Los Dalton
- 13.00 Berango Sukaldeak - Ganbelas
- 15.00 Estrella Floja - Equs
- 16.00 Excavaciones Lete - Auf dem Koffer
- 17.00 Etxe Mobiliario - Los Insoциables
- 18.00 Kirten Tropel - Borrock Promesas
- 19.00 Mobiliario Arenaza - Hirei

Iturripe B

- 09.00 Los Garimbas - Txeyenex
- 10.00 Lautherbrunnen - Top Hits
- 11.00 Lo + X - Altza Porru
- 12.00 Fancy Bois - Los Dimy
- 13.00 Corinto Taberna - Lore Gazteak
- 15.00 Solano 7 Mares - Yomai
- 16.00 Borrockn Roll - Elisabeth
- 17.00 Atxanta ke te merece - Bodisca
- 18.00 Ezkiñako Hontzak - Stockers
- 19.00 Sorgol - Bayern Lenitz



Falta diren jardunaldiak

Bigarren fasearen laburtasanak partidu guztiak serio-serio hartzera behar-tzen ditu aldeak. Bakoitzaren aukerak hobeto neurtzeko, zenbait taldetatik falta diren jardunaldietako parekatze guztiak zeintzuk izango diren argitaratze-ko eskatu digute, eta hementxe daude, beraz, bakoitzak bere kalkulu eta planak egin ditzan.

5. JARDUNALDIA, APirilak 9-10

A TALDEA

- Los Heredia - Pepelus
- Potroak Lora - Franciscanerr
- Arlutz - Revolution Rock
- Nabarro - Zotz

B TALDEA

- Zulus - Jey Juliwer
- Fosforos - Bukanak
- Mikelos - Sokoakoak
- Uglys Txinato - Anbotoste

C TALDEA

- Argi Ibili - Kakajauri
- Sum. Ugarte - Motz
- Tovarixtx - Arr. Kirolak
- Irati STS - Tronkoteak

D TALDEA

- Trikiti - Carbuross
- Zuloak - Lenitz Garagar.
- Danok Lagun - Arr. Kristaldegia
- Tuttifruti - AC Surcos

6. JARDUNALDIA, APirilak 16-17

A TALDEA

- Los Heredia - Zotz
- Potroak Lora - Rev. Rock
- Arlutz - Franciscanerr
- Nabarro - Pepelus

B TALDEA

- Zulus - Anbotoste
- Fosforos - Sokoakoak
- Mikelos - Bukanak
- Uglys Txinato - Jey Jul.

C TALDEA

- Argi Ibili - Tronkoteak
- Sum. Ugarte - Arr. Kirolak
- Tovarixtx - Motz
- Irati STS - Kakajauri

D TALDEA

- Trikiti - AC Surcos
- Zuloak - Arr. Kristaldegia
- Danok Lagun - Lenitz Gar.
- Tuttifruti - Carbuross

7. JARDUNALDIA, APirilak 23-24

A TALDEA

- Los Heredia - Potroak Lora.
- Revolution Rock - Zotz
- Arlutz - Pepelus
- Nabarro - Franciscanerr

B TALDEA

- Zulus - Fosforos
- Sokoakoak - Anbotoste
- Mikelos - Jey Juliwer
- Uglys Txinato - Bukanak

C TALDEA

- Argi Ibili - Sum. Ugarte
- Arr. Kirolak - Tronkoteak
- Tovarixtx - Kakajauri
- Irati STS - Motz

D TALDEA

- Trikiti - Zuloak
- Arr. Kristaldegia - AC Surcos
- Danok Lagun - Carbuross
- Tuttifruti - Lenitz Garagar.

I
R
T
A
B
E
R
N
A

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 56 11

Deba Garaia Inmobiliaria



Inmueble eta finantza agentzia

Maalako Arrabala, 31 **ARRASATE**
Tfnoa: 77 13 02

ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK



77 08 15

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

● Juan Mari Uzkudun Urteko enpresaria

Juan Mari Uzkudun, Copreci kooperatibako gerentea, 1993ko Gipuzkoako urteko enpresari izendatu du Merkataritza Ganbarak. Uzkudunek 49 urte ditu, donostiarra da jaiotzez baina 25 urte pasa ditu Arrasaten, beti ere kooperatiben alorrean, Fagorren gehienbat. 1989tik ari da Aretxabaletako Copreci enpresan. Elektragailuetarako osagaiak egiten ditu Coprecik.

— Zer izan da sari hau zuzentzat eta enpresarentzat?

— Lehenengo, poz handi bat. Bigarrenik, batez ere kanpotik begiratuta, enpresaren garapenaren eta enpresa ondo dihoan adierazpen bat.

— Ekonomia aipatzen dugunean, hitz bat etortzen zaigu burura: krisia. Krisitik libre dago Copreci sasoi hauetan?

— Ez, ez. Krisi barruan, murgilduta. Baina agian honek adierazten du igeriketan hobeto ibiltzen garela beste batzuk baino. Nik uste dut, gainera, krisi hau ez dela krisi guztiz kanpotar bat, baizik eta gure krisia ere badela. Krisi honek eskatzen du aldaketa bat, enpresaren aldaketa bat.

— Oro har kooperatibak


hobeto ari dira erresistitzen?

— Datuak kontuan harturik, badirudi baietz. Galdera egiten badugu: gu besteak baino hobeto gabilta? Ba bai, kontuan harturik zer gertatzen ari den siderurgian, edo nabalean... ba bai. Baina galdera da ea nahiko ondo ote garen erresistitzen; eta horretan, ni behintzat, kezkatu nago. Zergatik? Krisia oso latza delako alde batetik, baina bestalde, kompetentzia izugarria daukagula eta mundu honetan inork ez du mesederik egiten, inork ez du kupidarik zer gertatuko den Aretxabaletan edo Arrasaten. Konturatu behar gara, prestatu behar gara galdera horretarako, ea nahiko ondo ari garen erresistitzen. Eta nik uste dut hobeto egin beharko genukeela.

— Beraz, krisirako giltza kompetentziarako prestatzea da.

— Horixe! Burruka latzerako prestatzea, eta uste dut burruka horrek aldakuntza izugarria ekarriko duela enpresa batentzat.

Nik esaten dudanean aldatu egin behar dugula, uste dut denok aldatu behar dugula. Ez zuzendaritzak bakarrik: pertsonak, langile guztiak, esturkturak, mentalitatea eta abar eta abar. Krisi honek adierazten duena da ez ginela



prestatu.

— Baina konfidantza duzu Leintz Baileraren etorkizun industrialean?

— Uste dut hori soziologo batek erantzun behar lukeela. Borondatea jartzekotan, eta nahiko kontziente izatekotan, ni baikorra izango nintzateke guztiz. Baina zalantza bat dut, nahiko kontzientzia eta borondate jarriko ote dugun, hori aurrera eramateko. Zalantza bat baino gehiago daukat, zer gertatzen ari den ikusita.


— Sindikatuen kritika bat izaten da, dena laudorioak direla enpresarentzat, eta aldi, langileak traba soiltzat hartzen direla.

— Nik esango nuke, lehenengo haritik jarraituz, aldaketa premia guk denok

daukagula. Krisi hau gertatu bazaigu, horrelako ondorio latzekin, nahiko ondo jokatu ez dugulako izan da. Denok. Goitik behera. Urte askoan uste dut inkontziente samarrak izan garela. Soldatetan gehiegi irabazi dugu, merezi baino gehiago. Produktibitatea 2 edo 3 puntuz altxatzen denean, soldatak 6 puntu igotzen badira, horrek ez dauka beste ondorio langabezia baino. Hori lege bat da. Eta horretan erori gara denok, sindikatuak ere bai.

Baina hori atzera begira da, eta alferrikakoa da. Gure betebeharrak handiena aurrera begirakoa dugu orain. Zer egin litekeen aurrera begira. Gure itzaropen bakarra oso gogor jokatzeko da, oso kontziente izan konpetibitatea hor dagoela eta burruka latza izango dela, eta denok prestatu horri begiratuta. Enpresak zenbat eta indartsuago izan, orduan eta lanpostu gehiago eta etorkizun hobea izango dugu guk denok, gure seme-alabek eta gure herriak.

● **“Industriaren etorkizunari buruz baikorra izango nintzateke, baina zalantza bat baino gehiago daukat”**



NASako astronautak, Ramses-eko aparailua erabiltzen ikasi zuten Toulouse-n, Ikerlaneko teknikariek irakatsita.

Ikerlanen Ramses eta i-ARES proiektuak

Lehen (gailu) arrasatearrak espazioan!

Luis Fernandez

Datorren uztailean, Columbia espazio-untziarentzat NASAk prestatutako misioan, Arrasaten egindako gailu bat joango da. Ikerlanek egindako kontrol-aparailu hau proiektu europar batean integratuta dago, eta Arrasateko teknologia ikertegiarentzat erronka eta aurrerapausu handia ekarri du dagoeneko. Hurrengo urratsa urrunago irits daiteke: Marterako ibilgailu

baten parte garrantzitsu bat egingo baitu Ikerlanek.

Ramses eta i-ARES dira bi proiektu espazial hauen izen bitxiak. Ramsesen 1989tik jardun dute lanean Ikerlanen, eta i-ARESein oraintxe hasten dira. Ramsesen funtsa zera da: espazioan proteinak garatzea, grabitate falta erabiliz. Frantzia eta Belgikako enpresa eta zentroekin elkarlanean aritu da Ikerlan, armairu baten itxura duen gailu hau egiteko.


Ikerlanen zatia, armairua-

ren goikaldean jarritako kontrola egitea izan da; makina gobernatzeko mandoen atala, astronautek erabiliko dutena, esperimenduak gidatzeko. Esperimenduak garrantzi handia izan dezake medikuntza arlorako. Alor hori Frantziako Roussel Uclaf laborategiak garatu du (RU-96 pilula abortiboaren asmatzaileak dira), eta minbizia tratatzeko botika posible bat da esperimentuaren helburuetako bat.

Lau urtez, 10 bat laguneko taldea aritu da proiektu honetan lanean, Alberto Ruiz de Olano injineruaren zuzen-

daritzapean. NASAk eskatutako estandarrak oso estuak dira, makinaren funtzionamendu zuzenak ez du zalan-tzarik izan behar, eta horregatik lanaren aldetik asko "ikasteko" balio izan dio Ikerlani.

Aparailua dagoeneko muntatuta dago eta Estatu Batuetara eroan dute, Toulousen (Frantzia) frogatu ostean. Toulouseko frogahorretan uztaileko misioko astronautak izan ziren, gailua nola dabilen ikasteko, eta horkoa da, adibidez, gure azaleko argazkia. Uztaileko hegaldian, Ikerlaneko ordezkari bat Toulousen izango da Columbia untiarekin lotuta, esperimentuaren jarraipena egiteko. Baliteke Floridako Kennedy espazio-zentroko jaur-





tike-
tan ere
Arrasateko or-
dezkaritza bat izatea. Colum-
biaren misio hau ikerketa
zientifikoetarako da, eta Ram-
ses proiektua beste hainbat
ikerketa egingo dituzten ar-
mairuen artean egongo da,
Japonia, Europa edo Estatu
Batuak beste proiektu gar-
rantzitsu batzuen artean.

MARTE ERE BAI

Columbia untzia 13 egu-
nez egongo da orbitan Lurra-
ren inguruan, Ramseseko apa-
railua barruan duela. Baina
Ikerlan prestatzen hasi den
hurrengo aparailua, urrunago
irits daiteke. i-ARES sigla bi-
txien atzean, Marteko lur-aza-
lean mug litekeen rover edo
ibilgailu bat egitea da koska.

Hau ere nazioarteko
proiektua da. Frantzia eta
Hungariako enpresek soft-
ware informatikoa egingo
dute, Errusiak ibilgailua bera,
eta Ikerlanek (Madrileko
INTA eta IAI zentroekin ba-
tera, Arrasateko ikertegia
proiektu buru delarik) gailuak
izango duen beso robotikoa.

Rover hauek iretargian
frogatu izan dira orain arte,
eta errusiarrak dira teknolo-
gia honetan maisu, euren Lu-
nakhod ibilgailuekin. Giro
aldakor, bortitz eta ezezagun-
etara moldatu beharreko
"auto" berezi honen konpo-
nente nagusietako beso me-
kanikoa izango da. Ikerlanek
diseinatu behar duen beso


honek, begiak izango
ditu ingurua arakatu eta
irudiak lortzeko, eta
terreno puskak ere
analizatuko ditu, lur-
ra gantxoekin har-
tuta.

Lau urtez arituko
dira lanean besoa
egiten Ikerlanen.
Gero, Martera iritsiko
den ala ez, ikusi egin
beharko da. Lehenengo eta
behin, Marteko baldintzak si-
mulatzen dituen Frantziako
laborategi batean frogatu be-
harko dute prototipoa, mode-
lo definitiboan Martera bidalt-
zeko moduan dagoen ikuste-
ko.

Kontua da Marterako
proiektuak atzeratu samar da-
biltzala, iaz Mars Observer
satelitea bertako orbitara hur-
biltzean galdu zenetik. Hala
ere, XXI. mendeko lehen ha-
markadan "lehen arrasatear-
rak" —robot batek— Marte
bisita dezake.

"GENERIKOAK"

Espaziorako ikerketa
hauen onura, praktikaren al-
detik dator batipat. Ikerlanek
ez du "negozio" zuzenik egi-
ten proiektu hauekin, eta bai
dirutza handia gastatu, gero
dirulaguntza ofizialekin estal-
tzen dena. Nolanahi ere, iker-
keta beti da etorkizunerako
inbertsioa, eta horregatik, alor



Columbian joango den aparailu honen kontrola egin du Ikerlanek.

honetan proiektu asko gar-
tzen dituzte Ikerlanen. Proie-
ktu "generikoak" esaten diete
ikerkuntza lan hauek.

Ikerlanen aurrekontuen
%60-65a, enpresentzat egin-
dako lan konkretuetarako da.
Beste %30 bat inbertitzen da

programa "generikoetan".
Teknologia eta aurrerakuntza
berrietan esperimentatu eta
garatzeko bidea dira "gene-
rikoak", agian epe laburrean
aplikazio zuzenik ez duten
proiektuak dira, baina etorki-
zunera begira asko balio izan
dezaketenak. Une hauetan,
bestek beste, zortzi proiektu
generiko ari dira garatzen
Europako Esprit eta Eureka
programen barne. Institutuzio-
ek dirulaguntzekin babesten
dituzte ikerkuntza hauek.

Generiko hauen emaitze-
tako bat Vea robota da. Gailu
horrek, bere ibilbidea erabaki
dezake, paretaren perfilari
ultrauhinez jarraituz. Marte-
ko ibilgailuaren besoa gara-
tzeko balio izango du Veare-
kin ikasitakoak. Bide batez,
3-dimentsioko ikusmena, ro-
botika aurreratua, eta adimen
artifiziala bezalako alorrak
landu ahal izango dituzte.

20 urte aurten

Aurten 20 urte beteko diru Ikerlanek, eta maiatzean egingo
den batzar orokorrean ospakizun egitarau bat onartuko dute
motibo horrekin. 1973 eta 74. urteetan, kooperatiben alorretik —
bereziki Eskola Politeknikotik bultzatuta— bultzatu zen ikertegi
hau, industriaren alorrean teknologiak zuen garrantzi gero eta
handiagoaz jabeturik.

20 urte hauetan, punta-puntako ikerkuntza zentroen artean
jarri du Arrasateren izena Ikerlanek, ez Euskal Herri mailan
bakarrik. 1982tik, proiektuak elkarlanean garatzeko komenioa
dauka sinatuta Jaurilaritzarekin. Euskal Herriko EITE ikertegi elkar-
teko fundatzaileetako bat da, eta Europako EACRO erakundeko
partaide ere bai, Estatu Espainiarreko zentruen ordezkari gisa.
Gaur egunean, 120 bat langile aritzen dira denbora osoz Ikerla-
nen, eta unibertsitateetako 40 bat bekariok ere bertan dihardu
ikertzen.



Kakarraldoren aurka Garagartzan jokaturako lehen partiduko irudi bat.

Rugbya: datorren urterako utzi behar igoera

Arrasate Rugby Taldeak galdu egin zuen euskal 1. mailara igoetzeko aukera, Kakarraldok kanporatu ostean. Plentzian, 17-15 galdu zuten arrasatearrek. Aurreko asteburuan ere Kakarraldok nagusitu zitzaion Arrasateri Garagartzan, 7-19 orduko hartan.

Plentziako itzulera partidua Garagartzakoa baino askoz ere biziagoa izan zen: oso lehiatua eta gogor samarra ere bai, Kakarraldoren aurka jokatu behar izan den bakoitzean bezala. Bi puntugatik galdu zuten, baina kontuan hartzekoa da Kakarraldoren bi entseiu oso zalantzarazkoak izan zirela. Arrasateko rugbyari iriziz ilegalak izan ziren, eta arbitroak ez zituen ondo sei-

nalatu. Entseiu horiekin eta ondorengo transformazioekin 14 puntu lortu zituen Kakarraldok. Kontuak egin da, plentziarrei 14 horiek kendu ezker, kanporaketa berdinduta geratuko zatekeen tantoetan. Baina azken batean arbitroaren erabakiak balio du, eta horrela geratu da Arrasate kanpoan.

Orain, euskal ligako 2. mailako 3. postuagatik egin beharko du burruka Arrasatek, Sestaoren aurka. Larunbatean jokatu dute partidua, Bilboko zelai neutralean. Kakarraldok, bere aldetik, Universitariosen taldearen aurka jokatu beharko du igoera lortzeko.

Arrasatek beste urtebete itxoin beharko du iaz galdutako maila berreskuratzeko.

3. geratuta aukera urrunen bat ere egon liteke gora egiteko, segun eta euskal taldeak nola portatzen diren goiko kategorietan, baina ia ezinezko aukeratzat jo daiteke hori. Datorren urtean izan beharko du, akaso talde indartsuagoarekin, izan ere jubeniletatik jokalaria on mordoxka bat talde nagusira pasatuko dira eta, adinez hala tokatzen zaielako. Horrela, jokatzeko lehia biziagoa egongo da plantilan bertan.

Bestetik, asteburu honetan Ingalaterrako talde jubenil bat etorriko da Garagartzara, Arrasateko jubenilen aurka lagunarteko partidua jokatzera. Britainiarrak biratxo bat egiten ari dira Euskal Herrian eta hemen ere jokatu dute, beraz.

LABURRAK

Saskiz, irabazi

Lidergoan segitzen du Arrasate Saskibaloitza taldeak, Musakolan Getxori 99-86 irabazi ostean. Gainera, etsai zuzenenek, Atletico San Sebastianek eta Askatuak, galdu egin zuten, eta bakarrik dago taularen goikaldean Arrasate. Honenbestez, amaitu da igoera faseko lehen itzulia, eta bi asteko atsedena dago orain. Ondoren, Altsasua izango da hurrengo etsaia (han jokatu da), sailkapenean 2. doan talde nafarra.

Eskuz, galdu

Arrasate Kirolak-ek nahiko kaskar hasi zuen 2. mailara igoetzeko fasea. Iturripen 19-20 galdu zuten Gasteizko Gure Auzuneren aurka. Juxtu irabazi zuten kanpotarrek, baina justizia osoz. Derrota hau atzerapausu bat da Arrasaterentzat, igoera fasko kaskarrenak Arabako bi taldeak direnez, horiekin galdu ezker, zaila gora egitea.

Koadrilen olinpiadak

Koadrilen arteko olinpiadak jokatu dira apiril-maiatzean, Eskoriatza, Gatzaga, Aretxabaleta eta Arrasateko lagun-koadrilen artean. 7 lehiaketa edo kiroletan jardungo dute koadrilek lau asteburuz. 14 urtetik gorako gutxienezko 8 laguneko koadrilak behar dira olinpiadarako.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
 **77 08 15**

 **EGVZKiGRAF**
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia
 Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PENALTIAK

●Datorren asteko larunbatean, jubenil kategoriako nazioarteko futbol partidua jokatu da Atxabalpen. Gipuzkoako selekzioak (Inaxio Kortabariaren gidaritzapean) Liverpool-en aurka jokatu du. Adi beraz, apirilaren 2an, Atxabalpen, arratsaldeko 5etan.

●Emakumezkoen Mondrak ligako azken partidua du asteburuan. Ezinbestekoa zaio irabaztea, eta ez hori bakarrik, baita Gure Txokoak ez irabaztea ere, txapeldun izateko. Liga bikaina egin dute arrasatearrek, eta lidergoan ere joan dira luzez, nahiz eta orain bigarren postuan dauden.

Pilotalekua ez ahazteko eskatu diote udalari

Uharkapeko arazoa desblokeatu egin dela eta, Arrasateko Pilotazale Elkarteak pilotalekuko obrak berriro has daitezzen eskatu dio udalari. Elkartearen juntak bilerara izan du aste honetan, eta gaia aztertu ondoren erabaki zutenez, eskaera bat zuzendu diote alkateari, pilotalekua ez ahazteko eskatuz. Arrasateko pilotazaleen aspaldiko eskaera bat da hau, eta bere garaian onartu ere egin zuen udalak, baina kontua da ea nahikoa aurrekontu egongo den obrak aurten hasteko, izan ere 200 milioi pezeta baino gehiagoko proiektua da hau.

Bestetik, Arrasateko pilotariak aurrera segitzen dute Deba Arroa txapelketan: 9



Uribarren eta Osinaga jubenilak (alboetara) eta infantilak erdian. partidutarik 8 irabazi dituzte, Antzuola eta Oñatiren aurkako denak, eta Aretxabaletaren aurkako bi, joan den asteburuan. Seniorrek bakarrik egin zuten kale. Herriz herri, hiru bikotek jokatzeko dute txapelketa honetan. Arrasatearrei dago kienez, infantilena fijoja da (Etxeberrria eta Rubia), baina aldakorak dira jubenil eta seniorren bikoteak. Txapelketan bederatziz herrik hartzen dute parte, bi taldeetan banatuta.

EMAITZAK

Futbola

3. maila: Aurrera Vitoria 5 - Mondra 0
Emakumezkoak: Antoniano 2 - Mondra 2
Jub. Ohorezko Liga: Mondra 2 - Beti Ona 1
Jub., 2. maila: Arrasate 1 - Bergara 6
Kadeteak, 1. maila: Arrasate 1 - Elgoibar 3
Kadeteak, 2. maila: Arrasate 0 - Zestoa 0
Hurrengoak:
3. maila: Mondra - Santurtzi. Atxabalpe, igan., 16.30.
Mondra - Arenas. Atxabalpe, hilak 31 (osteguna), 16.30.
Emakumezkoak: Mondra - Urreku. Atxabalpe, lar., 16.00.
2. regionala (kopa): Gazteak - Mondra. Lerun, lar., 15.30.
Jub. Ohorezko Liga: Martutene - Mondra. Igandea, 16.30.
Jub., 2. maila: Zumaia - Arrasate. Zumaia, igan., 16.30.
Kadeteak, 1. maila: Arrasate - Bergara. Atxabalpe, igan., 12.00.
Kadeteak, 2. maila: Ilintxa - Arrasate. Legazpi, lar., 11.00.
Haurrak: Beasain - Arrasate. Larunbata, 11.00.
Nazioartekoa, jubenilak: Gipuzkoa - Liverpool. Atxabalpe, apirilak 2, 17.00.

Saskibaloia

2. maila, igoera fasea: Arrasate 99 - Getxo 86
Sub-23: Arrasate 69 - At. San Sebastian 60
Jub. mutilak: Arrasate B 49 - Goierri 40
Bergara 63 - Arrasate A 53
Jub. neskek: Juven B 34 - Patterncam 51
Kad., mutilak: Loramendi Kirolak 75 - BKL CAF 46
Arrasate B 68 - Andraitz 95
Kad., neskek: Arrasate B 13 - Almen 58
Hurrengoak:
Sub-23: Garbi - Arrasate. Legazpi, lar., 16.30.
Jub. mutilak: Arrasate A - Xalbador. Musakola, igan., 11.30.
Jub. neskek: Sasoeta - Patterncam. Lasarte, asteazkena, 19.00.
Kad., mutilak: Andraitz - Loramendi Kirolak. Legazpi, lar., 12.00.
Almen - Arrasate B. Almen, lar., 18.00.
Kad., neskek: Inurok - Arrasate B. Oñati, lar., 11.00.

Rugby

Nagusiak, igoera fasea: Kakarraldo 18 - Arrasate 15
Neskek: Universitarios 5 - Arrasate 45
Hurrengoak:

Nagusiak, igoera fasea (kontsolamendua): Sestao - Arrasate.
Jubenilak, lagunartekoa: Arrasate - talde ingeles bat. Lar., Garagartza.

Eskubaloia

Igoera fasea: Arrasate Kirolak 19 - Gure Auzune
Jubenilak: Arrasate Kirolak 22 - Beasain 19
Hurrengoak:
Igoera fasea: Cajabilbao - Arrasate Kirolak. Barakaldo, lar., 17.30.
2. ter. (Gipuzkoako Kopa): Beasain - Arrasate Kirolak. lar., 11.30.

Pilota

Deba Arroa txapelketa:
Nagusiak: Arrasate 17 - Aretxabaleta 22
Jubenilak: Arrasate 22 - Aretxabaleta 10
Infantilak: Arrasate 18 - Aretxabaleta 3
Hurrengoak:
Deba Arroa txapelketa: Eskoriatza - Arrasate parekizteak.
Gipuzkoako Kopa, infantilen finala: Arrasate - Soraluze. Igan., Anoeta.

GORKA
ILEPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

PEUGEOT - TALBOT
Salmenta eta zerbitzua
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Altzariak
Diseinua
Apainketa
M ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Kontu kontari, Pello Añorgari

Pello Añorgari

Ahozko euskal ipuinekin hazi gintuen amamak. Beraiek izan ziren lehenengo narratzaileak, irakurtzen oraindik ikasi barik geundenean. Istorio haiek ireki zizkiguten mundu berri baten atak, irudimenaren munduarenak. Bizitzaren hasieran lortzen da inoiz baino errazago irakurzaletasuna. Etxean, gurasoekin, aiton-amonekin lortzen da literaturarekiko sentsibilitatea. Pasadizo entretenigarri eta atseginak entzuterakoan umeari abenturazko liburuak irakurtzeko gogoak sortarazten ditu. Hitz xamur eta gozoekin lor daiteke poesia dastatzea edo, agian, irudiekin jolaste-trebetasuna. Baina urteek aldaketa garrantzitsuak ekartzen dituzte eta, kontu guzti hauek ahaztu egiten ditugu. Seriotu egin gara, arazo gero eta handiagoak.

goak soinean daramatzagula. Dagoeneko ez dago astirik amonaren istorio haiek gogoratu eta seme-alabekin berreskuratzeko. Hautzaroko gauzez ez dugu ia ezer jakin nahi. Helduak gara eta "umekieratan" denbora galtzeak lotsatu egiten gaitu. Horrela, irakurtzen ikasten ari den haurrari ez diogu ia ipuinik kontatzen. Handitzen doan heinean bizitzaren sakontasunean sartuko da. Erich Kaestner idazlearen hitzak datozkit gogora: "...txapel zahar bat balitz bezala uzten dute pertsona gehienek beren hautzaroa, balio ez duen telefonoko zenbaki bat bailitza ahazten dute..."

Apirilaren hasieran, **An-**

dersen jaio zen egun berberetan, Haur-Liburuaren Nazioarteko eguna ospatzen da. "Ahate itsusia" idatzi zuenak sekula ez zion utzi haur izateari. Horrexegatik egin zen hain gizon handia. Batzuek pentsa lezaket haur-literaturaren inguruan testu ximplegi eta inozoegiak daudela, bapitat helburu didaktikoekin, pertsona helduak izateko bideak erakusten dituztenak soilik. Horrelako liburuak ere egon badaude. Hala ere, esan behar da inoiz ez direla egin egun ikusten diren tamainako liburu polit eta erakargarriak; inoiz ez direla izan hain poetiko eta maitagarriak; inoiz ez direla idatzi umeen mundutik hain hurbil. Haurrentzako liburuek emozioak sentitzeko aukera ematen di-

gute. Haur-literaturan helduen literaturan agertzen diren elementu gehienak errepikatzen dira: horrexegatik, kalitatea irizpide nagusitzat harturik, esan daiteke, lasai asko, literaturak ez duela adinik. Helduei eta haurrei zuzenduriko literaturaren artean ez dagoela muga garbirik. Kalitatezko literatura irakurrita denek gozatzen dugula: umeek, gazteek eta helduek.

Liburuaren mundua kea bezela desager ez dadin irakurzaletasuna bultzatu beharra dago eta, normalean, zenbat eta gazteagotan irakurtzen hasi, orduan eta hobeto. Hori lortzeko misterio guztia seme-alabei liburuak eskaini eta ematea besterik ez da. Gainera, gurasoek eurek ere irakurtzen badute, motibazio itzela eskaintzen diote haurrari irakurtzen jarrai dezan. Liburu anitz dago dendetan, liburutegietan... helduen konplizitatea behar dutenak umea mundu horretan sartzeko. Har dezagun, beraz, denbora apurtxo bat egunero ipuin polit bat irakurtzeko.

ASUN AGIRIANO.



HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Idalma Soto Fernandez Sagasta aldizkari eta tabako dendakoa



- Gustoko duzu zure lana? Bai.
- Kotxeko karnetik baduzu? Ez.
- Nongoa zara? Kubakoa.
- Sarritan joaten zara Kubara? Urtean behin; hango eguraldia asko botatzen dut faltan.
- Zein pelikula mota duzu gustokoen? Beldurrezkoak.
- Zerk jartzen zaitu gorri? ezerk ere ez, ez dut lotsarik.
- Noiz egin zenuen negar azken aldiz? Martxoaren 6an.
- Ezkondu ala elkarrekin bizi? Ezkonduta nago.
- Seme-alabarik? Bai, bi.
- Liburutegira joateko ohiturarik baduzu? Ez.
- Badakizu euskeraz? Oraindik ez, baina ikasten ari naiz, AEKn.
- Zaila iruditzen zaizu? Bai, oso zaila.
- Irakurtzeko ohiturarik? Ez, egunkaria bakarrik irakurtzen dut.
- Zein da lan honen alderik txarrenea? Letrak eta seiiloak saltzea.
- Jokatzen duzu lotoan? Ez, batzutan ONCEn kupoia erosten dut.
- Barruko erropa, zein koloretakoa atsegin duzu? Berdin zait; denetarik pixka bat.
- Belarritako luze edo txikiak? Txikiak.
- Egin duzun azken txorakeria? Ezkontzea.
- Jakirik gustokoenak? Piper eta mariskoa.
- Zer ez zenuke sekula jantziko? Soineko luze bat.
- Politikan konfiantzarik baduzu? Nire herrikoan bai.
- Mutil polit bat ikusten duzunean, zeri begiratzen diozu lehenengo? Begietara.
- Inoiz esan dizuten gauzarik goxoa? "Bizitzan gertatu zaidan gauzarik politena zara"
- Bizitzako momenturik tristeena? Euskal Herrira bakarrik etorri nintzenean.

BERTSOAK

Muru gainean torre berria

Burnizko torre berri bat ein da Muru mendiren gainean ura zertak izan ziteken galdera ein nuanean bertan zegoen erantzun zidan oso modu jatorrean ortarako den telefono bat sartu ezkerko kotxean onen laguntzaz nora naien itz ein lezake errepidean

zientzi bidez sortzen ari da ainbeste sorginkeria urte gutxiren buruan Murun bi torre aundi ein dia teleautoa laguntzeko bat besteak telebistia oin eun urteko artzai zan aiek berriz elduko balia esango luke oin emen dago Anboton zan señoria.

AGERRE


Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE
Tfnoa: 79 97 86

ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

V. O. Version Original

General Alava, 16 - Tfnoa: 13 33 39 - GASTEIZ

Joanne Wrathall eta Michelle Tait Lancasterretik Arrasatera

Inglaterran, unibertsitatera joan baino lehen laneko esperientzia egiten dute ikasleek. Helburu horrekin, Lancaster-etik hainbat ikasle etorri da Arrasatera AHIZKerekin. Horietako birekin hitzegin dugu: Joanne Wrathall eta Michelle Tait-ekin.

— Zertarako balio du “lan-esperientzia” honek?

— Michelle: Lan egiten ikasten duzu, eta gainera, institutuko ikasketak bukatu ondoren egin behar duzun karrera hori benetan gustoko duzun edo ez konturatzen zara. 16 urte bete dituzten Ingalaterrako ikasle guztiek egin behar izaten dute esperientzia laboral hau, asignatura bat gehiago da eta azkenean, lan bat aurkeztu behar izaten da. Unibertsitatera joan aurretiko urte bakoitzean egin behar izaten da lan hau, horrela, esperientzia desberdinak izaten ditu ikasle bakoitzak.

— Lana “txarto” egiten baduzue, arazoak izan ditzakezue unibertsitatera sartzeko?

— Michelle: Ez. Egia esan, unibertsitatei interesatzen zaiena, esperientzia bera da, eta ez lanaren kalitatea. Gauza



berriak ikastea, mundua ezagutzea eta lana egiten ikastea da garrantzitsua.

— Joanne, zuk kazetari-tza ikasi nahi duzu. Non ari zara esperientzia jasotzen?

— Joanne: “Telesko”-ra joan behar dut eta baita Bergarako “Aritz-ondo”ra ere. Joxebi Ramosek ere laguntzen dit elkarrizketak prestatzen. Eta noski, Arrasate Press eta ATB ezagutzeko aukera ere izan dut.

— Euskal Herrira zatoten lehen aldia da hau?

— Joanne: Bai. Oñatiko familia batzutan gaude bizi izaten eta oso

.....
“Larunbat gaueko giroak izugarri harritu gintuen”

gustora gaude. Oñati oso polita da, oso “zaharra”. Martxoaren 19an etorri ginen eta apirilaren 2an, Lancasterrera goaz berriz ere.

— Zer moduz moldatzen zarete hizkuntzarekin?

— Joanne: Beno, erdara praktikatu nahi genuelako ere etorri gara hona; 2 urte t’erdi daramatzagu gaztelera ikasten. Bestalde, hitzegin baino, hobeto ulertzen dugu.

— Lan egiteaz gain, zein beste gauza egiten duzue denbora pasatzeko?

— Michelle: Irteerak egiten ditugu, Arrasate ezagutzen ari gara orain; atzo, adibidez, Musakolako kiroldegia ikusten egon ginen. Datozen egunetan, Gasteiz, Donostia eta Burgosera goaz.

— Zer iruditzen zaizue hemengo giroa eta jendea?

— Joanne: Uf! Lancasterekin konparatuta, hau oso desberdina da. Larunbat gauean irten genuen eta kalean zegoen jende eta taberna piloak harritu egin gintuzten: Lancasterren ezin izaten gara tabernetara sartu 18 urte bete arte. Gainera, lagun pila bat egin dugu, primeran ari gara pasatzen. Ez genuen espero giro hau.

LABURRAK

Txistuen soinupean

Arrasate Musikalek, Txistu Kontzertua antolatu du datorren igande honetarako, hilak 27. Eguerdiko ordu batean izango da Udaletxeko arkupetan.

Giroa berotzeko, eguerdiko 12.30etan herriko kaleetatik zehar kalejirak izango dira eta ordu batetan kontzertua izango da. Kontzertua zuzentzeaz, Juan Karlos Larreategi Unamunzaga arduratuko da, akademiako txistu irakaslea. Arrasate Musikaleko txistu ikasleek, metal taldeak, perkusioak, akordeonistek, Elgoibarko “Inazio Bereziartua” musika eskolako ikasleek eta Elgoibarko udaletxeko txistularien bandak hartuko dute parte.

Goikobalu-Txiki jaio da

Goikobaluk 4 urte bete ditu eta euren “kantera” izateko momenturik egokiena hau dela ikusi dute; horrela ba, Goikobalu-Txiki sortu da. Zuzendaritza, Anuska Ezkurak eramango du, Goikobaluko abeslari denez eta abesbatza txikien zuzendaritzan esperientzia handia duenez. Lehenengo entsaioa, martxoaren 26an izango da arratsaldeko 4etan SFX ikastolak Gazteluondoren duen lekuan.

Ondo pasatzeko eta kantatzeko gogoia duten 10-16 urte bitartean dauden Arrasatearrei zabaltzen zaie deia.

ITURGINTZA ETA KALEFAKZIOA

MENDIA

Etxeko konponketak - Kalefakzio-instalazioak

Uriburu, 6 ARRASATE Tfnoa: 79 57 59



PAZI-OLA

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94

“Rezagados”: Bizitzaren patua bizikletaren gainean

Hasi da Euskadiko Txirrindulari Itzuliaren inguruko giroa berotzen, horren lekuko, datorren larunbateko antzerki emanaldia: Geroa Antzerki Taldearen “Rezagados”. Gaueko 10.30etan izango da

GEROA ANTZERKI TALDEA

Durangoko talde horren sustraiak, 1969an aurkitzen dira. Durangoko mankomunitatearen barruan zegoen Gerediaga kultur taldeari, antzerki talde bat sortzeko ideia bururatu zitzaion, hainbat antzerkilari “amateur” bilduz. Urteen joan etorriaz, antzerki talde hori Gerediaga Kutur Taldetik urrunditu eta independente bihurtu zen. Orduetik hona, 3 etapek markatu dute “Geroa”ren bidea. Euskal Herrian “antzerki gogo” handia zegoela ikusita, Durangoko Antzerki Eskolaren sorrera bultzatu zuen, ordurarte Durangon ez baitzegoen antzerkia seriooki jorratzen zuen talderik. Eskola horretan, afizionatuentzat, esperientziadunentzat eta profesionalentzat hainbat ikastaro antolatzen hasi ziren: mimoa, inprobisazioa, klowna, akrobazia eta gorputz espresio ikastaroak. Taldea egoera onean zegoela eta, “Geroa” taldeak, salto profesionala ematea erabaki zuen 1979.



Bizikleta gainean izango dira aktoreak, ordu t'erdiz.

urtean: Momentu horretan, 3. etapa hasi zen.

GAUR EGUN...

Gaur egun, tekniko, arduradun eta aktoreen artean, 13 pertsonak osatzen dute “Geroa”. Obra guztiak gazteleraz egiten dituzte, nahiz eta “Durango: Un sueño” obraren

arrakasta izan zela eta, eukaraz ere antzestu zuten.

Finantziarioari dagokionez, bi urtetako “lehortea” jasaten ari direla diote, “gobernuak ez du diru asko ematen eta horrek arazoak ekartzen ditu. Aurten, oso diru banaketa arraroa egin dute, hasi berri diren edo hain garran-

tzitsuak ez diren taldeei, guri baino diru gehiago eman die. Loteria hutsa da, ez dakigu dirua banatzeko zer kriterio erabiltzen duten eta ez dute hori argitu nahi.”

Ez dute zuzendari finkorik: antzerki obra bat asmatzen dutenean, obra horri egokitzen zaion zuzendaria bilatu eta kontratatu egiten dute, “Rezagados” antzezlarekin gertatu den moduan. Ernesto Caballerok zuzendu du, baina jadanik alde egin du Madrilerara.

ZER KONTATZEN DU “REZAGADOS”EK?


Antzezlana hain behar bezala egiteko, hainbat txirrindulari profesionalen laguntza behar izan zuten, bizikletaren gaineko esperientzia ezagutzeko, horien artean, Mikel Zarrabeitiarena.

Euskadiko Txirrindulari Itzulian, pelotoia tunel batean sartu eta talde bereko 3 txirrindulari, euskalduna, atzeritarra eta kolonbiarra, jausi egiten dira. Ez zaie ezer pasako baina tuneletik irtetea direnean, bakarrik aurkitzen dira, inguruan ez dago ez motorrik, ez kotzerik, ez ikuslerik ezta helikopterorik ere.

Antzezlana, zentzu bikoitza du: txirrindularien egoera bat isladatzeaz gain, gizakiak patuaren aurka eguneroko egin behar izaten duen borroka ere isladatzen du. Pedaleatzen jarraitzeak benetan merezi duen edo ez galdetzerantz helden da txirrindularia, azken finean, edozein giza-egoerari aplikatu ahal zaion momentua da: “Rezagados” bizitzaren beraren ispilua da.

Lore lurrindegia


Olarte kalea, 10 ARRASATE fnoa: 79 14 99



ERAIKUNTZAK

Olarte, 30 etxabea.
Tfnoa: 79 77 11
Faxa: 79 77 11
ARRASATE
Postakutxa: 118

Joanne Wrathall eta Michelle: "Rezagabos"
 Bizitzaren parta
 bizikletaren gainean



1912. urtean Arrasaten izan zen txirrundulari froga baten argazkia.

T

xirrundulari Itzulia Arrasatek abiatzea ez da nolana-hiko gertakaria, eta apirilaren 4ean izango dugu lehen

etapa hori Arrasateko kaleetan zehar. Antolakuntza guzti horren barruan gogor jardun du lanean Batzorde Antolatzailleak. Aste honetan aurkeztu du egitarauaren barruan atera duten Bailerako txirrundularitzaren historiari buruzko liburuxka. 3000 ale kaleratuko dira eta dohainik banatuko da herrian. Argazkiak partikularrek utzitakoak dira; informazioa, berriz, gai honen inguruan idatzirik ez ez dagoenez, ahoz-ahoz batu

ahal izan dena izan da. Lan latza, beraz. Liburua egitearen ardura Adolfo Ruiz de Austrik eta Kepa Olidenek izan dute. Liburuxkan argitaratuko diren argazkiez gain, 100 argazki inguruk osatutako erakusketa ere izango da Monterronen, herrian batutako argazki eta Kutxak bere bildumatik utzitakoekin.

Erretratu horietan zaharrena, 1912an Mondraueko karrera baten ateratako hau izango da. Urte horretako uztaila-

ren 3an karrera bat izan zela jasotzen da Gipuzkoako Haziendako Batzordearen ofizio batean eta hori da lehen erreferentzia. Bi karrera izan eiziren, biak ere dohainik ikuslegoarentzat, eta aurrez ordaindutako kanona itzuli egin zitzaizen antolatzaillei.

Jende multzo horretan ezagunak, **Jesus Uranga, Rufo Aranbarri, Agustin Maidagan, Juan Kruz Aranburu, Bonifazio Iñurriagarro** eta **Miguel Sampedro** dira.

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa Tfnoa: 79 76 58 ARRASATE

1960tik, gaur zuri bitxi eta erlojuginzak katalogorik zabalena eskaintzeko



Zubiaga
Kale-barria, 18
20.560 Oñati
Tfnoa.: 71 60 74

Zubiaga
Maalako Errabala 5,
20.500 Arrasate
Tfnoa.: 79 19 25
Fax: 79 14 89

UNITED COLORS OF BENETTON.

Maalako Errabala, 13 ("Okendo Kirolak"en ondoan) Tnoa. 79 50 78 ARRASATE



Etxeko ekipamendu osoa


a, eme...
interiores

Garibai, 9 Tfnoa: 79 15 03 ARRASATE

• AIPUA •

*Bizitza
bitxi bat da.
galdu ezker
aurkitzen ez dena*
CALDERON

• JEROGLIFIKOA •



Larramendiren sorteria

• GURUTZEGRAMA •

1	2	3	4	5	6	7
8					9	
10				11		
12			13		14	
15		16				
17		18				
19						

J. B. AGORRIA

Horizontala 1. Gipuzkoako mendia Arrasaten (778 m). 8. Adin. 9. (Ald.) Hortzak finkatzen ditu. 10. Saka egin. 12. Berba. 13. Agitu aditzaren infinitiboa. 15. Burua nahastua izan. 17. Europako Komunitatea. 18. Errepikatuz, zerbaiten hots leuna. 19. Zeken, zikoitz.

Bertikalak 1. Faborez. 2. Udaldiko egunak igarotzeko lekua. 3. Biblian Jacoben emaztea. 4. Udaberri eta udazkenaren artean. 5. Gipuzkoako kostaldeko udalerría. 6. Bi, erromatar erara. 7. Zein tokitan. 11. Asko. 14. (Ald.) Diti, bular. 17. Identifikazio Fiskalerako Kodea.

• HOROSKOPOA •

Aries Hobe duzu gezurra asmatu baino lehen, egia esatea.

Taurus Jendearen aurrean belarri ertzera gauzak esaten aritzeak itsusi ematen du.

Gemini Beti besteengatik gaizki-esaka zabilta, baina zeu perfektoa al zara?

Cancer Hankaz gora jausi eta denen aurrean lotsagarri geratuko zara.

Leo Gaur da zure egun mundiala eta ahal duzun ondoen igaro.

Virgo Aste honetan ez dizu iratzargailuak joko eta lo geratuko zara.

Libra Egunak ez dira gora begira egoteko, ganorazko gauzak egiten aprobetxa itzazu.

Scorpio Zergatik horrenbeste konplejo? Ez zara besteak baino gutxiago.

Sagittarius Zortea: oso ona, maitasuna: gutxi baina ona, dirua: soberan.

Capricorn Hau irakurtzen ari zaren bitartean bazkaria erreko zaizu.

Aquarius Beti zarena baino gehiago izan nahi duzu, baina zu zeu izanda konformatu beharko zara.

Piscis Daukazu begiko mina gehiegi estudiatzeagatik da. Komeni da noizean behin deskantsatzea.

BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.


GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

• JOSE LUIS ENEKOTEGIREN GOMENDIOA •



“Sasoian sasoikoa” pentsatu du Enekok gomendioa eskatu diogunean. Eta sasoia aurrera badoa ere, sagardotegira joatea gomendatu nahi izan digu. Urtean behin gutxienez eta lagun kuadrila joaten dakite, Astigarragara edo Hernanira normalean. Afaria ohizkoa, bakailo tortila, txuleta eta intxaurreak gaztai eta menbrilloarekin. “Ederto pasatzen dugu, kupeletik kupelera, hori bai, beti txotxetik. Handik irtendakoan izaten dira kontuak...”. Apur bat ibiliz gero sagardoa bereizten ere ikasten dela iruditzen zaio.

• PROGRAMAZIOA •



27 Igandea

20.00etan
Astebete errep.
20.30etan
Mondrago

28 Astelehena

13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
“Kukaratxa Motel” errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport
22.00etan
Filme Erraldoia: “Harreman arriskutsuak”

29 Asteartea


13.30etan
Eguerdiko Berriak
13.35etan
Mondrasport errep.
14.05etan
“Harreman arriskutsuak” errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
ATBketan
22.00etan
“Azeri Grisa”

30 Asteazkena

13.30etan
Eguerdietako Berriak
13.35etan
ATBketan errep.
14.05etan
“Azeri Grisa” errep.
20.00, 20.30, 21.00etan
Berriak
21.30etan
Tertulixan
22.00etan
Dokumentala: “Zer da zinematika?; Itsas garraioak”

Oharra: Hutsune hau aprobetxatu nahi izan dugu Aste Santu opor dibertigarriago pasa ditzazula opatzeko. Ikusten duzuen bezala, ez da ATBko programaziorik egongo ostegun eta ostiral Santuan. Telebistari deskantsatzen utzi beharko zaio ere, ezta? Ondo pasa eta preskopresko bueltatu oporretatik!

• KOMIKIA •



VE ECUADOR
Bidaiak

Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

• SOLUZIOAK •

JEROGILIFIKOA
Andain.
Non. 11. Ugart. 14. Tit. 16. IFK
3. Raket. 4. Uda. 5. Getaria. 6. II. 7.
Bertikalak 1. Mesedez. 2. Udaketu.
Zurkaitz.
15. Deliratu. 17. EK. 18. Fih. 19.
de. 9. Or. 10. Sakatu. 12. Eje. 13. Agt.
Horizontalak 1. Murugain. 8. Eda-
GURUTZEGRAMA

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Garajea salgai.** Irekia (marraduna). Uribarri Etorbidean. Tfnoa: 79 85 24. Egurdietan.
- **Maiatzetik edo ekainetik** aurrera etxebizitza alokatuko nuke. Tfnoa: 77 12 00. Yolanda (Ikerlan).
- **Erdialdean** etxebizitza alokatzen da, guztiz amueblatua eta kalefakzioaz. Interesatuok dei egin 79 35 50 tfnora, arratsaldez.
- **Bi lagun gara** eta apartamendu bat alokatu edo pisu bat konpartituko genuke Arrasate edo inguruan. Tfnoa: 36 14 50. Mikel. Dei egin 9,30etatik aurrera.
- **Apartamendua salgai** Arrasateko erdialdeko Olarte kalean. Sukaldea-egongela, bi logela eta ganbara. Aire egokitu eta berogailuaz. Prezio egokia. Tfnoa: 79 63 16. Gaeuz deitu. Luis.0
- **San Bixente kalean,** gulegorako etxebehea alokatzen da. Tfnoa: 79 18 95.
- **Zure etxean gela bat libre** baduzu, neuk alokatuko dizut. Tfnoa: 77 04 98. Irene. Bulego orduetan deitu.
- **Etxebizitza salgai Uribe auzoan.** 90m2takoa. 2 gela, 2 bainu, garajea, trastelekua eta ganbara ditu. Hobekuntza ugari egindakoa da. Tfnoa: 79 37 99. Mikel. 8etatik 3etara

Lana

- **Neska bat** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko gertu. Tfnoa: 79 39 49.
- **OHO**n diplomatuak eta Euskal Filologian lizentziatuak, OHO eta euskara klaseak ematen ditu Eskoriatzan. Tfnoa: 71 40 39. Ana.

- **Enpresa lizentziatuak** Administrari gisa egingo luke lan, edo kontabilitate, matematika edo finantza matematikazko klaseak emango lituzke. Esperientziaduna. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Andra euskalduna,** etxeko lanak egin eta haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko prest legoke. Tfnoa: 79 07 73.
- **Esperientziadun andrea etxeko garbiketak** egin eta haurrak zaintzeko prest dago. Bulego eta atariak ere garbituko nituzke. Dei egin 79 31 44 tfnora. Miriam.
- **Emakume euskalduna** eta esperientziaduna eskaintzen da garbiketarako egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. (Orduka). Tfnoa: 79 96 31.
- **Neska bat umeak zaintzeko** prest. Tfnoa: 79 82 98. Monica.
- **Emakumea eskaintzen da** garbiketarako egiteko, etxeak, bulegoak... Interesatuoki dei egin dezala 79 63 27 tfnora. Natividad Uriarte.
- **Inglaterrara au-pair** bezala joateko konfidantzako famili bat ezagutzen dut. Tfnoa: 79 24 59. Kris.
- **Masajak etxean** emateko prest. Estheticienne eta kirol-masajista naiz. Tfnoa: 79 72 29. Mari Karmen).
- **Esperientziadun neska** haurrak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 77 94.

Salerosketak

- **Mountain-bike bizikleta** salgai. Otero Procha Shimano Deore DX markakoa. Berri berria, egoera ezinobean. Interesatuok dei egin 77 06 82 tfnora. 9etatik 11etara eta 5etatik 8etara. Gari.

- **Narruzko butaka** beltzak salgai. Estrenatu gabe eta prezio egokian. Tfnoa: 79 52 80.
- **Bibolina** jotzen ikasi nahi baduzu, nik daukat behar duzun bibolina. Berri-berria. Tfnoa: 79 08 79. Karol.
- **YAMAHA SZR 600 motorra** saltzen da. Berrikusita eta puntuan jarrita. Motor eder bat erosi nahi baduzu, deitu 79 91 59 tfnora. (Gaeuz). Xabier.

Denetarik

- **Telebista bat bota** behar baduzu eta oraindik martxan badabil, akordatu nitaz. Tfnoa: 79 25 47.
- **Urrezko pultsera** galdu nuen San Andresen ostiralean. Eskertuko da. Tfnoa: 79 07 69. Felisa.
- **Zilarrezko pultsera** aurkitu dut. Maribi izena darama eta San Valentin eguneko data azaltzen da. Zurea bada, dei egin 79 09 00 tfnora. Josefe.
- **Norbaitek oparituko** balit, egongelarako alfombra, gustora ametituko nuke. Tfnoa: 79 64 50.
- **Izozkailua, sukalde mistoa** (2 butano, 2 elektriko) labe elektrikoaz. 2 zuloetako fregadera, trituradorarekin. Garbigailua. Dena erregalatzen da. Tfnoa: 79 43 23.
- **Platinozko belarrirako** perladuna galdu zait, Zerkaostetatik Eskualde Ospitalera bidean. Tfnoa: 79 22 09. Eskertuko da.

Aste Gazte

Bekak

• Udan atzerrian ingeles eta frantses hizkuntz ikastaroak egiteko bekak. Baldintzak: aurten bekario diren ikasketa ertainetako ikasleei. Ikasketa mailak: 3. BBB, UBI, LH II eta IEEko 2. zikloa. Epea: martxoak 30.

Udalekuak 94

• Diputazioak aurtengo udaleku kanpaina kaleratu du. Adina: 7-13 urte. Toki ezberdinak, datak, hizkuntz

modalitateak eta adinen araberak. Aurtengo nobedadea: plazak zozketa bidez banatu behar dira. Zozketarako ize-na emateko epea: apirilak 11-12.

Lanpostuak

• Gipuzkoako Diputazioak ondoko lanpostu hauek betetzeko deialdia egin du: Garraioetarako ikuskapen laguntzaile bat, eta Gazte aterpetxeetarako gobernari bat.

Azken Eski Irteerak

• Diputazioaren kanpaina: a) apirilaren 4tik 9ra, Pal-en (Andorra); irteera Arrasatek (27.000 PTA). b) apirilak 9-10 eta 23-24 asteburuetan Candanchura, 7.400 PTA.

Lehiaketak

• "Errenteriako Komi-kien VI. lehiaketa". 16 eta 30 urte bitarteko gazteei zuzendua. Epea: apirilak 18.
• "Anagrama Lehiaketa" San Viator ikastola. Epea: apirilak 29.

"Nere ustez, 20 urterekin bizi izan dituzun gauzak 30 urte, 50 urte edota, noski, 60 urterekin bizi izan dituzunak bezain garrantzitsuak dira".

ROSA REGAS (AZKENENGO NADAL SARIAREN IRABAZEA), EL PAIS-EN.



Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

Geroa Antzerki Taldea



ARRASATE

Martxoak 26, **I**arunbata

Amaia **A**ntzokian

Gaueko 10,30etan

Sarrera: 500 PTA

Gazte **T**xartelarekin: 300 PTA



Antolatzailea:

ARRASATEKO UDALA



Laguntzailea:



EUSKAL HERRIKO TXIRRINDULARI
XXIV TXIZOLA

ARRASATE

1984ko APRILAK 4

REZAGADOS

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

*1/40ko beherapena
modelo batzuetan*

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52

ARRASATE

Tfnoa: 79 99 42

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Enparantza, z/g

ARRASATE

Tfnoa: 79 00 43

FAGOR

